

I. MAILAKO ENTRENATZAILEEN (ESKOLA-KIROLEKO BEGIRALE LAGUNTZAILEA) BLOKE KOMUNEAN BEGIRADA EKITAKTIBOA BARNERATZEKO MATERIALAK

JUAN ALDAZ ARREGUI




**Kirol
eskola**

Kirolarik hazi eta ikasi

I. MAILAKO ENTRENATZAILEEN (ESKOLA-KIROLEKO BEGIRALE LAGUNTZAILEA) BLOKE KOMUNEAN BEGIRADA EKITAKTIBOA BARNERATZEKO MATERIALAK

JUAN ALDAZ ARREGUI





AURKIBIDEA

1 Sarrera	7
2 Aniztasuna, inklusioa eta justizia soziala kirolean.	
Gizarte ekitaktibo baterantz	9
2.1 Aniztasuna kirolean eta kirola aniztasunean	9
2.2 Inklusioa kirolaren bidez	14
2.3 Kirola eta ekitatea, ekitaktibitatea, binomio bereizezina justizia soziala lortzeko bidean	16
3 Zergatik izan nahi duzu EKBL? Kiroleko inekitatearen arrazoiak erreproduzitzeko edo horiek eraldatzeko?	19
4 (In)ekitatea lantzeko dimentsio nagusiak	21
4.1 Kirola (in)ekitate-iturri gisa, osasun psikofisikoarekin lotuta	21
4.2 Adina, (in)ekitatearen iturri	25
4.3 Genero-(in)ekitatea. Kirola endekatu edo birstutu?	28
4.4 Etnia-arrazalazazioa eta erlijioa, kiroleko inklusio-erronka	31
4.5 Kirol-praktika, klase sozialaren kontua?	34
5 Ondorio osatugabeak	37
6 Erreferentzia bibliografikoak	39
7 Glosarioa	41





1 SARRERA

Kiroleko¹ **ekitatea** aipatzen dugunean, zeri buruz ari gara? Gauza bera dira **berdintasuna** eta ekitatea? Ekitateak zerikusia du **justizia sozialarekin**? Edonola ere, ekitatearen esanahia eta zentzua (edo, gutxienez, hemen emango dizkiogun esanahia eta ikuspegia) aurreratu nahi izan gabe, ekitatea eta kirola lotzeko ideiaaren atzean kirolaren onurekin lotutako premisa bat dago; alegia, kirola eskubide –eta ongizate– iturri dela, eta, nolabait, herritar guztiengana iritsi behar dela, bereziki haur eta nerabeengana (aurrerantzean HEN). Ondorioz, kontzeptua-ren nondik norakoak mugatu beharra dago, eta mugatu beharra dago, halaber, zein kasutan den kirola ongizate–iturri.

Material hauen helburua da eskola–kiroleko begirale laguntzaileak (aurrerantzean EKBL) jabetzea zer-nolako inplikazio soziala duen EKBL gisa betetzen duten lanak aurrez aurre dituzten –edo izan ditzaketen– arazo sozialak erreproduzitu edo eraldatzeko.

Funtsean, eta proposamen nagusia aurreratuz, kirolean (in)ekitate–arazoak jorratzeko formula magikoak daudela uste duena oker dago. Horren lekuko dira gaiari buruzko literatura zientifikoa eta ebaluazioak. Halaber, oker dago uste duena kirolaren ikuspegi lehiakorren ordeztuak ludikoaren alde egitea dela konponbidea; izan ere, bi ikuspegietan (in)ekitate sozialak sor, anplifika eta/edo kronifika daitezke.

Beraz, lan–material hau kontzientziatzeko jarduera gisa ikusi behar da, EKBLen lanari buruzko begiradan sakontzeko eta gizarte justuago baten alde lan egiteko, kirolean eta kirolaren bidez. Hitz batez, gure buruari galdetzeko kirol–modalitate bateko edota batzuetako entrenatzaile soilak edo hezitzaileak garen.



¹ Kirolaren kontzeptua aipatzean, 2021eko Kirolaren Europako Gutunean jasotako definizioan oinarrituko gara: “jarduera–fisiko oro, parte–hartze informal edo antolatuaren bidez xede duena egoera fisikoa eta ongizate mentala mantendu edo hobetu, harreman sozialak eratu edo maila guztietako lehiaketatan emaitzak lortzea”.



2 DANIZTASUNA, INKLUSIOA ETA JUSTIZIA SOZIALA KIROLEAN. GIZARTE EKITAKTIBO BATERANTZ

Azterlan honen ideia nagusietako batek dioen bezala, kirolaz eta hezkuntzaz mintzatzeak ekitateaz mintzatzea dakar, nahitaez. Kirol-jarduerarik fisikoa eta ekitatea, 2.3 epigrafean sakonduko dugun moduan, justizia sozialera bideratu nahi badira, elkarrekin landu eta ulertu behar dira; hau da, begirada **ekitaktibo** batekin jorratu behar dira (Aldaz, Asurmendi eta Iturrioz, 2018).

Literatura zientifikoak frogatzen duen moduan, ulertzen badugu gizakiok jarduera fisikoa egin behar dugula (ez soilik arrazoi fisiologikoengatik, baizik eta baita arrazoi psikologiko, sozial eta kulturalengatik ere), zalantzarik gabe, 2021eko Kirolaren Europako Gutunak² azpimarratzen duen moduan, kirola ez da luxua, baizik eta herritar guztientzako eskubidea.

Kirol-praktikarako eskubide hori jasotzen da *Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 LEGEAREN printzipio gidarietan, legearen helburuetan eta jarduteko irizpideetan* (2. artikulua); hala, hauxe ezartzen du c) epigrafean, eskubide hori bermatzeko: "oztopo guztiak kentzea pertsona guztiak jarduera fisikoan eta kirolean, benetan, berdintasun-baldintzetan edo ekitatez aritzeko".

Horri gehitzen badiogu gora egin dutela nagikeriarekin eta sedentarismoarekin lotutako osasun-arazoek gure gizarteko bizimoduaren ondorioz, argi dago funtsezko erronka dela oro har herritarrek eta bereziki HENek ohitura aktiboak har ditzatela. Beraz, kirolak HENen artean duen garrantzia ez da txikikeria, baizik eta "joko" serioa.

Hala ere, kirola gizartearen parte da, eta, beraz, gizarte gisa ditugun erronka nahiz arazoaren isla eta iturria da. Beraz, halako gizarte nabarrak osatzen ditugun pertsona guztion ekitate eta inklusioaren erronka ez da inondik ere kirol-testuinguruetara bakarrik mugatzen.

Jarraian adieraziko dugun moduan, nahiz eta erronka horiek ez dagozkien berez kirol-testuinguruei, testuinguru horiek ere badituzte dinamika propioak. Azter dezagun pixkanaka.

2.1 Aniztasuna kirolean eta kirola aniztasunean

Ekitatea, inklusioa eta justizia soziala jorratu aurretik, hona hemen lehen baieztapen eztabaia: gure gizartearen (Euskadikoa barne) ez-augarrietako bat **aniztasuna** da.

Aniztasun horren dimentsio nagusiak adina, generoa, klase soziala, etnia eta osasun psikofisikoa dira (ikusi **1. irudia**, jarraian), eta botere-sistema gisa funtzionatzen dute, eta, ez zaienez balio bera ematen antolakuntza/saillkapen sozialeko sistema horietatik eratorritako balizko errealitate guztiei, zoritxarrez, kasu askotan diskriminazio-egoerak sortzen dira, adibidez *adinkeria*, *sexismoa*, **arrazismoa** eta/edo *kapazitismoa*, besteak beste.



² https://search.coe.int/cm/pages/result_details.aspx?objectid=0900001680a42107.




1. IRUDIA. Dimentsio sozio-demografiko nagusiak.

Aniztasun hori, hala ere, islatuta egon daiteke gure kirol-testuinguruetan; beraz, zein neurritan islatzen da aniztasun sozio-demografiko hori gure kirol-testuinguruan, desberdinkeria hori (egonez gero) eragin dezaketen arrazoieta sakontzeko?

Euskadiko lehen egitura-analisi sozio-demografikoak elkarrekin lotutako bi joera erakusten ditu: jaiotza-tasaren beherakada eta biztanleriaren zahartzea. Euskadiko 1976ko eta 2023ko biztanleria-piramideen arteko alderaketa adierazgarria da (ikusi alderaketa-grafikoa **-2. irudia-**, jarraian).


Ikusten den moduan, biztanleria-piramideak biztanleria gaztearen oinarri zabala du, eta murriztu egiten da urteek aurrera egin ahala (horrek ematen dio piramide-forma), txanpiñoi-itxura hartu arte, non biztanleria gaztearen oinarria murriztu egiten den eta burua handitu, bizi-itxaropenaren gorakadaren eta jaiotza-tasaren behar kadaren ondorioz, beste faktore batzuen artean. Bilakaera horren ondorioak iraultzeko irakurketa esanguratsuenetako baten arabera, Euskadik, eredu sozioekonomikoa mantendu nahi badu, etorkin gehiago beharko ditu³, eta, ondorioz, aniztasun handiagoa.



2. IRUDIA. Biztanleria erkidego eta hiri autonomoen eta sexuaren arabera.

Iturria: Eustat. Adierazle demografikoak. Biztanleen udal-estatistika. Biztanleriaren proiektzioak.

³ 2023/05/25eko izenburua: «Adegiren arabera, Euskadik jaitza eta etorkin gehiago behar ditu "erretiro-tasa handiaren" aurrean» (iturria: <https://www.eitb.eus/es/noticias/economia/detalle/9214098/adeqi-asegura-que-euskadi-necesita-mas-natalidad-e-inmigracion-ante-gran-jubilacion/>).



3. IRUDIA. Biztanleria osoaren eta atzerritarren bilakaera (%) EAEn eta lurralde historikoetan (1998-2022).


Iturria: E/N. Egilea: Ikuspegi.

Gaur arte, Euskadiko biztanleriaren banaketaren bilakaerak, atzerriko jatorriaren arabera, gora egin du pixkanaka azken bi hamarkadetan (ikusi **3. irudia**, jarraian); hala, % 11,5ekoa izan zen 2022an (253.939 atzerritar Euskadiko 2.208.174 biztanleen artean). Gainera, badirudi gora egiten jarraituko duela, adierazi dugun moduan, gure eredu sozioekonomikoa mantentzeko beharragatik.

Sexua da urteek aurrera egin ahala aldatu ez den aldagaietako bat. Gizarte gehienetan (eta ia guztietan) ohikoa den moduan, banaketa egonkorra da, % 50 emakumeak eta % 50 gi-

zonak (Euskadin, honako hau izan zen sexuaren araberrako banaketa 2021ean: % 51,4 emakumeak eta % 48,6 gizonak) (ikusi **4. irudia**, jarraian).

Beste aldagai garrantzitsu batek lotura du maila sozioekonomikoarekin edo klase sozialarekin. Ez ditugu azalduko aldagai horren konplexutasuna eta haren neurketari buruzko beste kontu teoriko-metodologiko batzuk, baina, zalantzarik gabe, aldagai garrantzitsua da. 2020. urtean, Euskadiko batez besteko errenta pertsonala 22.343 eurokoa izan zen, eta, sexuaren eta adinaren araberrako banaketan, azpimarratzekoak



4. IRUDIA. Biztanleria erkidegoen nahiz hiri autonomoen eta sexuaren arabera.

Iturria: E/N. Egilea: Ikuspegi.

2 ANIZTASUNA, INKLUSIOA ETA JUSTIZIA SOZIALA KIROLEAN. GIZARTE EKITAKTIBO BATERANTZ


dira, batez ere, gizonen eta emakumeen errenten arteko aldeak (ikusi **5. irudia**, jarraian). Gizonen batez besteko errenta 27.422 eurokoa izan zen, eta emakumeena, berriz, 17.667 eurokoa: hau da, gizonen errenta pertsonala emakumeena baino 9.755 euro handiagoa izan zen. Desberdinkeria hori mantendu egin da, alde desberdinekin, adin-tarte guztietan, oro har.

Datu horiei beste hau gehitu behar zaie: 18 urtetik gorako pertsonen % 14,64k ez zuten errentarik 2020an (emakumeen % 17,9 eta gizonen % 11,1).

Kontuan hartu beharreko azken aldagaia da **desgaitasuna** duten pertsonen ehunekoa. Euskadiko 2018ko Osasun Inkestaren⁴ arabera, Euskadiko biztanleen % 9,7k (emakumeen % 10,8 eta gizonen

% 8,6) desgaitasuna edo jardueraren mugaketa kronikoa zuten. Ehuneko hori bera erregistratu zen 2013ko inkestan. Noski, desgaitasuna duten pertsonen ehunekoa ez da berdina adinaren arabera, eta ehunekoak gora egiten du pixkanaka: 0 eta 14 urte arteko tartean % 1,5koa da, eta, 75 urtetik gorako pertsonen artean, berriz, % 32koa.

Hala ere, Euskadiko erradiografia sozio-demografiko labur hori beste aldagai batzuk gehitu behar zaizkio, besteak beste nortasun afektibo-sexuala eta erlijio-sinesmenak, baina, zailentzarik gabe, gure gizartea gero eta nabarragoa da eta halaxe izango da. Galdera zera da, nola islatu eta lantzen da aniztasun hori gure kirol-testuinguruetan?




5. IRUDIA. EAEko errenta pertsonala adin eta sexuaren arabera. 2020.

Iturria: Eustat. Pertsonen eta familien errentaren estatistika.

⁴ <https://www.euskadi.eus/informacion/encuesta-de-salud-2017-2018/web01-a3osag17/es/>

BEGIRADA EKITAKTIBOA AKTIBATZEKO GALDERAK

- Gure gizartearen aniztasuna zuen kirol-testuinguruan islatzen da?
- Ez bada hala, zeri egozten diozu?
- Zer egin dezakezu zure kirol-testuingurua nabarragoa izan dadin?
- ...



2.2 Inklusioa kirolaren bidez

Gure gizartearen aniztasuna labur azaldu ondoren, hura joratzeko modua aztertu behar dugu. Hau da, zein neurritan sartzen ditugu gure kirol-testuinguruetan edo, alderantziz, baztertzen (nahita edo nahi gabe) **talde nagusiarekin** alderatuta desberdinak diren pertsonak, zenbait arrazoiengatik (sexua, adina, etnia eta/edo klase soziala, besteak beste) eta **diskriminazioa eragin**? Talde nagusia esaten dugunean, arlo jakin batean (kirolean, adibidez) pribilegioak eta boterea dituen taldeaz ari gara.

Inklusioaren kontzeptua ulertzeko, harekin lotutako zenbait kontzeptu argitu behar dira, besteak beste bazterketa, segregazioa eta integrazioa.

6. irudian (jarraian) ikusten den moduan, zera da **bazterketa**: ertsona batzuk talde batetik (esate baterako, kirol-klub batetik) kanpo uztea, sexuatik, adinagatik, etniagatik eta/edo mugimendu-konpetentziengatik, adibidez.


Bestalde, **segregazioa** da pertsona-talde batetik kanpo uzteaz gain (lehen aipatutako arrazoiengatik), pertsona horiek beste talde batean edo batzuetan taldekatzea.

Integrazioari dagokionez, pertsona-talde bat edo batzuk beste talde baten barruan sartzea da, baina ez da inolako aldaketarik egongo taldearen barruan, ezta interakziorik ere.

Azkenik, **inklusioa** da pertsona-talde bat edo batzuk beste talde baten barruan sartzea, taldearen osaera aldatzea eta jatorrizko taldeen arteko interakzioa eta fusioa sustatzea.

Halaber, testuinguru askotan, kirol-arlokoak barne, diskriminazio-egoera horiei aurre egiteko, **diskriminazio positiborako** estrategiak planteatzen dira, hau da, pertsona-kopurua handitzeko estrategiak, aipatutako dimentsio sozio-demografikoetako batzuetan oinarrituta. Helburua da kolektibo horien ordezkaritza desorekatua eragiten duten inertzia sozialak "zuzentzea" testuinguru sozialetan, kirol-arlokoetan barne.

Kirol-testuinguruan, zalantzarik gabe, lau ikuspegietako edozein aplikatu daiteke, kirolaren bidez lortu nahi diren helburu sozialen arabera. Halaber, kirol-modalitateak berak, hezkuntza-arduradunek hura garatzeko interpretatzen duten malgutasunaren arabera (hau da, praktikaren arau tradizionalak egokitu edo aldatzeko presutasunaren arabera, pertsona gehiago edo gutxiago sartzeko), dinamiketako edozeinen alde egin ahal izango du.



6. IRUDIA. Kontzeptuen irudikapen grafikoa: bazterketa, segregazioa, integrazioa eta inklusioa. Iturria: Ikasi inklusioaren eta integrazioaren arteko desberdintasuna (fundacionjuanxxiii.org).

Edonola ere, talde arteko bazterketa-, segregazio-, integrazio- eta inklusio-dinamika horiek ez diete erreferentzia egiten soilik zenbait taldek sexuaren, adinaren, etniaren eta gainerako ez-augarri sozio-demografikoen arabera okupatzen dituzten testuinguruei, baizik eta testuinguru horien botere-erdigunean edo periferian egoteak dakartzan pribilegioei eta banaketa desorekatu horrek pertsonen ongizatean dituen ondorioei, esleitzen dieten edo sartzen diren taldearen arabera. Beraz, kontuak lotura du boterearekin eta garapen pertsonalerako funtsezko eskubideetarako **irisgarritasunarekin**, adibidez kirol-praktika osasuntsurako sarbidea.

Alde horretatik, eskubide horietarako **irisgarritasuna** aipatzean, ez gara ari soilik **irisgarritasun materialaz**, hau da, desgaitasuna duten pertsonen kirol-praktikarako sarbiderako egokitzapen arkitektonikoaz edo kirol-instalazioetan matrikulatzeko kostuak merkatzeko laguntza ekonomikoez, bi adibide jartzearen. **Irisgarritasun "imaterial" edo sinbolikoa** ere aipatzen dugu, hau da, pertsona batzuek kirola egin ahal izateko dituzten oztopo psikologikoak haustea, sentitzen baitute (arrazoi objektiboekin edo gabe) ez direla ongi etorriak kirol-testuinguru jakin batean, ez direla maila egokira iristeko gai izango edo osasunerako kaltegarri gerta dakiekeela (hala ez izan arren), eta abar.



BEGIRADA EKITAKTIBOA AKTIBATZEKO GALDERAK

- Uste duzu zuk lana egiten duzun (edo lana egin nahiko zenukeen) kirol-erakundea inklusiboa dela?
- Oro har, uste duzu kirol-testuinguruek gure gizartean aniztasuna baztertu eta segregatu edo integratu eta barneratu egiten dutela?
- Zer egin daiteke kirol-testuinguruak inklusiboagoak izan daitezen?
- ...



2.3 Kirola eta ekitatea, ekitaktibitatea, binomio bereizezina justizia soziala lortzeko bidean

Aurreko atalean adierazi dugun moduan, kirolari buruz hitz egiteko orduan ezinbestean jorratu behar ditugu **ekitatea** eta **justizia soziala**. Baina zer da zehazki ekitatea? Kontzeptu hori antzeko beste batzuekin nahasten da maiz, besteak beste berdintasunarekin, justizia sozialarekin eta **inklusiorekin** (7. epigrafean jasotzen da ekitatearekin lotutako terminoen glosarioa). Ekitatearen eta berdintasunaren arteko aldea iruditzen da: erabiltzen den ohiko irudietako bat hau da: partida bat hesiaren gainetik ikusi nahi duten hiru pertsona, bi sekuentzian (ikusi **7. irudia** jarraian).

Lehen sekuentzian berdintasuna irudikatzen da, eta pertsona guztiek "laguntza" bera dute: kutxa bat. Hala ere, kutxak erdiko pertsonaren egoera hobetzen du soilik, nahiz eta ezin duen partida erosotasun osoz ikusi. Gainera, ez dio ekarpenik egiten ezkerreko pertsonari, ez baitu kutxarik behar partida ikusteko, garaia delako. Eskuineko pertsonari ere ez dio laguntzen; izan ere, gur-

pil-aulkia erabiltzen du, eta ezin da bere kabuz igo kutxara. Edonola ere, igoko balitz ere ezingo luke partida ikusi. Bigarren sekuentzian ekitatea irudikatzen da: ezkerreko pertsonari ez diote kutxarik eman, ez baitu behar partida ikusteko. Erdikoari bi eman dizkiote, hesiaren gainetik ikusi ahal izateko partida. Azkenik, eskuinekoari arrapala bat eman diote, hesiaren gainetik partida ikusi ahal izateko.

Beraz, laburbilduz, esan dezakegu **berdintasuna** dela errealitatea pertsona bakoitzaren berezitasunetara egokitzea, eskubide, zerbitzu eta/edo onura batetik baztertuta ez gelditzeko eta **justizia soziala**⁵ lortzeko. Gure kasuan, kirol-praktika lortu nahi da justizia soziala eta haren bidez, gizarte **ekitaktiboa** sustatuz (Aldaz, Asurmendi eta Iturrioz, 2018).

Baina egia al da kirola, izatez, ezbairik gabe onuragarria dela denentzat? Egia al da haurrei pilota batekin jolasten utzita, automatikoki, sustatzen direla besteak beste osasuna, elkartasunaren eta enpatia-erantzunaren moduko balio sozialak edo gatazkak konpontzeko gaitasuna? Ez horixe. Ondorioz, bat egiten dugu PATRIKSSON (COALTER, 2007: 23) egilearen baieztapenarekin:



BERDINTASUNA

EKITEA

7. IRUDIA. Berdintasunaren eta ekitatearen arteko aldea.

Iturria: <https://www.idhsustainabletrade.com/news/talleres-inician-reflexion-sobre-la-equidad-de-genero-en-el-pacto-pci-de-barra-do-garcas/>.

⁵ Justizia soziala aukera-berdintasunean eta giza eskubideetan oinarritzen da, justizia legalaren kontzeptu tradizionaletik harago. Ekitatean oinarritzen da, eta ezinbestekoa da pertsona bakoitzak potentzial handiena garatzeko eta gizarte baketsua sustatzeko (iturria: <https://www.unicef.es/educa/dias-mundiales/dia-mundial-de-la-justicia-social>).

● ... kirolak potentziala du gizabanako baten hazkuntza pertsonala hobetu nahiz eragozteko, eta, jarduera gehien moduan, printzipioz ez da ez ona ez txarra, baina potentziala du emaitza positiboak nahiz negatiboak izateko.

Zerk bihurtzen du kirola garapen pertsonal eta sozialerako tresna positibo? Ekitatearen arloan begiraleek duten kontzientziak eta gogoeta-zaletasunak, eta hezitzaile-lanean alderdi horiek modu esplizituan aplikatzeak. Bestela, nahita edo nahi gabe, inekitatea eragingo dugu. Kendik (2020: 27) honako hau dio arrazismoari buruz, baina inekitatearen iturriei buruz ere esan daiteke:

● Ez dago politika –eta gure kasuan, hezkuntza– ez arrazista edo neutralik. Nazio guztietako erkidego guztietako erakunde guztien politikek arraza-berdintasuna eta –desberdinkeria sortu edo babesten dituzte arraza-taldean artean.

Hau da, lan egiten dute ekitatearen alde edo inekitatearen alde; ez dago neutraltasunik.

Lan hori egiteko, Spaaij, Magee eta Jeanes (2014) egileen ikuspegia egokitu behar da, zailtze jarri behar dugu gure begirale-lana, hiru planotan, eta honako hiru galdera hauek erantzun behar ditugu:

- a) Nola eragiten du **bazterketa sozialak** kirol-praktikan edo praktikarik ezean?
- b) Nola (erre)produzitu, esperimendu, eutsi eta kudeatzen da bazterketa soziala kirolean?
- c) Nola erabiltzen da kirola bazterketa sozialaren aurka egiteko eta inklusio soziala sustatzeko bizitzako beste arlo batzuetan?

Hiru plano horiek, lehen pertsonako galdera gisa planteatuta, honela itzul daitezke:

1. Begirale gisa, nor sartzen da eta nor ez gure jarduketan-eremura?
2. Begirale gisa, nola jorratzen ditugu **sexismoa, arrazismoa, kapazismoa, adinkeria, klasis-**

moa eta gainerako **bazterketa-egoerak** gure jarduketan-eremuan?

3. Begirale gisa, kirolek harago, nolako eragin soziala izan nahi dugu gai horietan, gure jarduketan-eremuan?

Egoeraz jabetzen ez bagara eta hiru plano horietan ikuspegi ekitatiboa lantzen ez badugu, inekitatea eragingo dugu, pertsona batzuk kirol-praktikatik kanpo utziko baititugu. Gainera, dinamika horien aurka egiteko tresna potentzial bat galduko dugu. Aldiz, modu kontziente eta hausnartzailean jorratzen badugu, begirada ekitatiboa emango diogu gure lanari, eta, ondorioz, lan egingo dugu modu ekitatiboan.

Beraz, heziketa-lan ekitatiboa egin ahal izateko, lehenik eta behin inekitate-iturri nagusiak identifikatu behar ditugu. Inekitatea sortzen da pertsona eta/edo talde sozial batzuek **bazterketa soziala** aplikatzen dutenean beste pertsona eta/edo talde sozial batzuen aurka, haien ezaugarriengatik. Bazterketa hori informala izan daiteke, egituratuta egon daiteke eta intentsitatea ere alda daiteke, baina beti inplikatu du "Bizitza sozialaren hainbat eremutan pertsona bati edo talde bati ematen zaion tratu bereiziala eta desberdina kategoriatan baten edo batzuen arabera, kategoriatan horiek benetakoak, esleituak edo irudizkoak izanik, hala nola kultura, generoa, adina edo klase soziala"⁶.

Tratu desberdin hori, gainera, kultura baten barruan egituratzen (egitura-indarkeria) eta sartzen (indarkeria kulturala) denean, *Galtunek*



⁶ <https://diccionario.cear-euskadi.org/discriminacion/>.

2 ANIZTASUNA, INKLUSIOA ETA JUSTIZIA SOZIALA KIROLEAN. GIZARTE EKITAKTIBO BATERANTZ

(1998) gogorarazten duen moduan (ikusi **8. irudia**, jarraian), indarkeria zuzen, fisiko eta/edo ahozkoaren adierazpenen oinarri bihurtzen da.

Izan ere, hau gogorarazten du egileak:


(...) gizakion ekintza ez da hutsetik sortzen, eta sustraiak ditu. (...) indarkeriaren kultura (heroikoa, patriotikoa, patriarkala, etab.) eta berez berritza den egitura, zapaltzaileegia, esplotatzaileegia edo alienatzaileegia izateagatik, gogorregia edo bigunegia pertsonen ongizaterako. (Galtung, 1998: 15).

Honela jarraitzen du Galtungek (1998: 16):

Indarkeria kulturala mito guztien, loriaren eta traumaren batura da, eta indarkeria zuzena justifikatzeko balio dute. Egitura-indarkeria munduko egitura sozialetako talka guztien batura da, zimendatuta eta solidotuta, eta

emaitza bidegabe eta desorekatuak aldaezinak dira ia. Lehen azaldutako indarkeria zuzena elementu horietako batzuen edo sindromearen emaitza da.

Indarkeriaren hiru dimentsioko ikuspegi horrek aukera ematen digu haren sustrai konplexuez eta ekitearen garrantziaz jabetzeko, ez soilik indarkeria horiek agerian jartzean, baizik eta ahalik eta azkarren jatorri kultural eta egiturakora joan da. Arrazismoaren, **xenofobiaren**, sexismoaren, kapazitismoaren eta homofobiaren jatorriaz jabetzeko aukera ematen digu, eta, horri esker, arrazoiak eta esku hartzeko estrategiak identifikatu ditzakegu. Azkenik, indarkeria-adierazpen zuzen horiek agertzen badira, porrot egin dugu hezitzaile gisa, ez baititugu sortu kirol-kultura eta -egitura ekitaktiboak.



8. IRUDIA. Indarkeriaren triangelua (Galtung, 1998: 15).

BEGIRADA EKITAKTIBOA AKTIBATZEKO GALDERAK

- Indarkeriari buruzko begirada zabalago honekin, uste duzu zure kirol-erakundeak edo zuk zeuk norbait baztertzen duzuela generoagatik, etniagatik, adinagatik edo beste edozein dimentsio sozio-demografikogatik?
- Badirudi gure kirol-testuinguruetan eta oro har gizartean pertsona batzuk baztertzen dituztela ezaugarri sozio-demografikoengatik. Uste duzu **diskriminazio positiboa** baliagarria izan daitekeela dinamika horiek iraultzeko? Zeintzuk dira estrategia horren alde positibo eta negatiboak?

3 ZERGATIK IZAN NAHI DUZU EKBL? KIROLEKO INEKITATEAREN ARRAZOIAK ERREPRODUZITZEKO EDO HORIEK ERALDATZEKO?

*“Ekintza pedagogiko oro, objektiboki,
indarkeria sinbolikoa da, botere arbitrario
batek arbitrariorotasun kulturala inposatzen baitu”.*

BOURDIEU eta PASSERON (1977: 19)

¿Zergatik izan nahi duzu EKBL? Nahiz eta badi-rudien gaiarekin lotutako prestakuntza jasotzea erabakitzen duenak argi duela eta erantzunda duela galdera (zerbaitengatik ari zara jasotzen prestakuntza), ziur aski, ekitatearen kontzeptua-rekin lotzen badugu, lan honen moduan, baliteke norbaitek hasierako motibazioak birplantea-tzea, norbait “une txar” hori ahalik eta azkarren pasatzen saiatzea, entrenatzen hasteko, edo norbaitek kirolaren potentzial eraldatzailearekin lotutako aurreikuspenak baieztatzea.

Ikuspegi ekitaktiboak ideia baten aurka jartzen gaitu: ezinezkoa da ekitatea kontuan hartuta mugitzen irakastea irakaskuntza mugitu gabe. Hau da, ezin dugu gizarte ekitaktibo baterantz aurrera egin kirol-irakaskuntzak birplantea-tu gabe, eta, noski, geure burua birplanteatu gabe.

Ezinbestekoa da geure buruaz jabetzea, edo, gutxienez, jakitea zein neurritan baldintzatzen duten gure lan pedagogikoa gure ezaugarri sozio-demografikoek (kontziente izan edo ez). Ez da berdina gizon, emakume edo pertsona ez bitar gisa, adingabe edo heldu gisa edota desgaitasuna duen pertsona gisa hezte. Gure errealitate sozio-demografikoak, ezinbestean, kontziente izan edo ez, gure lan pedagogikoa baldintzatzen du, eta, ondorioz, gure kirol-tes-tuinguruko inekitatearen arrazoiak erreproduzi-tzeko edo eraldatzeko bide eman dezakegu.

Horren jatorrian gure **sinesmenak**, **aurreiritziak** eta **estereotipoak** daude; izan ere, kasu gehienez, ziurtzat jotzen ditugu, zalantzarik eta asmo txarrik gabe. Are gehiago, askotan (eta hor dago indar erreproduktibo handia) nahi gabe jokatzten dugu horrela, eta, gainera, **profezia auto-beteak**



3 ZERGATIK IZAN NAHI DUZU EKBL? KIROLEKO INEKITATEAREN ARRAZIOAK ERREPRODUZITZEKO EDO HORIEK ERALDATZEKO?

(*Pigmalion efektua* ere deitzen zaio) sortzen dira: hau da, gertatzen dena gure aurreiritziek baldintzatzen dute; horixe gertatzen da, adibidez, uste badugu kirol-modalitate batzuk "mutilenak" edo "neskenak" direla, uste badugu norbaitek ez duela gogoko kirola egitea erlijio-sinesmenengatik, edo gehiegizko aditasunez tratatzen badugu desgaitasuna duen pertsona bat taldekideekin entrenatzean, adibide batzuk jartzearen. Kasu horietan, geuk jartzen ditugu mugak, eta ez pertsona horien potentzialak; izan ere, behatzen duguna ikusten dugu, gure sinesmenetan oinarrituta.

Errealitate hori ez da fenomeno indibidual bat, ezta hurrik eman ere; aitzitik, kirol-erakundee-tan ere aplika daiteke; izan ere, (in)ekitate-ikuspegi- oinarrituta, egitura eraldatzaileak izan daitezke, edo erreproduzitzeko egiturak, baina beti izango dira egitura egituratzaileak (*Bor-dieu*, 1991): desberdintasunen begirada "normalizatzaile" edo "naturalizatzaile" eraikitzen dute, eta, kasu askotan, nahita edo nahi gabe, desberdinkeria sozialak erreproduzitzen dituzte (taldeen generoaren arabera saikapenera itzuliz, eta soilik kirol-testuingurua baldintzatu ordez, genero-arloko desberdintasun soziokulturalak "naturalizatze" mezua bidaltzen diote gizarteari).

Halaber, oso garrantzitsua da argitzea zer ulertzen dugun kirol gisa, eta, noski, zein izango den haren funtzio soziala. Uste badugu kirola lehiazteko praktika "hutsa" dela, irabazteko helburuarekin (edozein modutan), justizia sozialarekin, ekitatearekin eta inklusioarekin lotutako alderdi horiek urrunekoak irudituko zaizkigu, eta, agian, baita gogaikarriak ere, amaierako helburua lortzeko. Bestalde, uste badugu kirolak zentzu zabalgooa duela, pertsonentzako ohitura aktibo eta osasuntsuen garapenarekin lotuta, hau da, pertsona guztiei bermatu behar zaien eskubidea dela, gai pedagogiko konplexuagoei egin

beharko diegu aurre, ezinbestean, mugimendu-konpetentziak eskuratze hutsetik harago. Lehen kasuan, ziur aski, inekitate-egoerak erreproduzitu eta anplifikatuko ditugu. Bigarrenetan, nahiz eta ezinezkoa izango den inekitate-egoera guztiak ekiditea, zalantzan jarriko dugu egoera horiek erreproduzitu edo eraldatzeko orduan dugun erantzukizuna, eta, beraz, modu ekitaktiboan egingo dugu aurrera gizarte justuago baten antz.

Horretarako, gure joerak mugatu eta errealitate konplexu hori joratzeko modu bakarra da gure lan pedagogikoa ikuspegi **hausnartzailearekin** egiteko gai izatea eta **ikasi** eta **aldatzeko prest** egotea, kontuan hartuta gure xedea dela kirolean eta kirolaren bidez justizia soziala lortzea.

Hausnarketa hori sustatzeko tresna erabilgarria izan daiteke **eguneroko** bat erabiltzea, **bitakorra-koaderno** gisa, gure lan pedagogikoarekin lotutako esperientzia eta sentimenduak islatzeko, eta, besteak beste, izendatzen ditugun pertsonen (eta izendatzen ez ditugunez) nahiz izendatzeko moduz jabetzeko, gatazkatsuak iruditu zaizkigun esperientziak birplanteatzeko eta pentsatzeko ea horiek berdin edo beste modu batean joratzeko genituzkeen orain. Azken finean, egunerokoa tresna erabilgarria izan daiteke hausnarketa pizteko eta gure lanak testuinguru ekitaktiboak sustatzeko izan ditzakeen inplikazioez jabetzeko, besteak beste ondo nabarmenduta zer alde dagoen gure **hezkuntza-** eta **kirol-proiektu esplizituan** idatziz jasotakoaren (egonez gero) eta ezkutuko **hezkuntza-** eta **kirol-proiektuan** jasotakoaren artean; ezkutuko hori modu informalean egiten da, eta, kasu askotan, nahi gabe (hemen sartuko lirateke genero-desberdintasunei, etniari, adinari, klase sozialari, osasun psikofisikoari, eta abarri buruzko aurreiritzi sakoneneekin zerikusia duten balioak).

BEGIRADA EKITAKTIBOA AKTIBATZEKO GALDERAK

- Zergatik izan nahi duzu EKBL?
- EKML gisa, zer egin dezakezu gizarte justuago baten alde? Zerrendatu jarduketa-eremu eta ekintzak zehatzak.
- ...

4 (IN)EKITATEA LANTZEKO DIMENTSIO NAGUSIAK

2.1 epigrafean (**Aniztasuna kirolean eta kirola aniztasunean**) aurreratu dugun moduan, gure gizarte nabarrak antolatzeke dimentsio nagusiak adina, generoa, klase soziala, etnia eta osasun psikofisiko dira (ikusi **1. irudia**). Halaber, aipatutako epigrafean adierazi dugun moduan, dimentsio horiek boterearen eta antolakuntza/sailkapen sozialaren sistemak dira, eta, askotan, diskriminazio-egoerak eragiten dituzte, besteak beste **adinkeria, sexismoa, arrazismoa** eta **kapa-zitismo**.


Dimentsio horiek jarraian aztertuko ditugu banaka, eta modu **intersektzional** konplexuan funtzionatzen dute, **intersektzionalitate** izeneko fenomeno gisa. Kimberlé Crenshaw jurista estatubatuarra (1989) izan zen terminoa erabili zuen lehen pertsona, baina, haren aurretik, AE-Bko feminismo beltzaren ordezkariak dagoeneko mahai gainean jarria zuten –beste izendapen batzuekin bada ere– arraza, generoa eta klase soziala bateratzearen garrantzia. Areago, argiro kritikatzeko zuten bazirudiela generoa eta arraza kontzeptuen oinarrian emakume denak zuriak eta gizon denak beltzak zirela, eta hauxe zioten: *“generoaren kontzeptualizazioa emakume zurien esperientzietan eta erdi-mailako klaseko eredu familiar kristauetan oinarritzen da [zen], bazter*

utzi nola pluralizatu eta zehazten duten arrazak, klaseak eta orientazio sexualak emakume izatearen esanahia”.

Beraz, ikuspegi intersektzionalak gogorarazten digu pertsonok ez garela soilik emakumeak, gizonak edo ez bitarrak, haurrak, helduak edo adinekoak, nazionalitate batekoak edo bestekoak, desgaitasunarekin edo gabe edota behe-, erdi- edo goi-mailako klasekoak. Pertsonok errealitate horien konbinazioak gara, eta modu partikularrean eragiten digute, modu intersektzionalan, **9. irudian** ikusten den moduan, jarraian.

4.1 Kirola (in)ekitate-iturri gisa, osasun psikofisikoarekin lotuta

Normalean, kirolaz hitz egiten dugunean, zenbait baliorekin lotzen dugu, eta, bereziki, lehiarekin, osasunarekin eta ongizatearekin, hau da, balio fisikoekin. Ondo mantentzeko zaindu beharreko makina gisa ikusten da gorputza, eta “zizelkatu” egin behar da nahi dugun irudia lortzeko; edo bikaintasun lehiakorra lortzeko tresna gisa ikusten da, ongizate fisiko eta psikikoaren kalterako, askotan. Azken finean, gorputz osasuntsuaren ideia sustatzen da, kirol-praktikarekin lotuta, eta,



9. IRUDIA. Intersektzionalitatearen dimentsioak.
Iturria: IMPEMAD | Generoa eta intersektzionalitatea.



alderantziz, gorputz osasungaitzat jotzen da kirol-praktika edo praktika fisiko nahikoa egiten ez duena; normalean, gehiegizko pisua edo obesitatea duten gorputzekin identifikatzen da hori (ikusi, besteak beste, OMEaren 2020ko gomendioak).

Irudi horiek sare sozialetan hedatzen dituzte, eta gorputz “desiragarrien” balio estetikoak sustatzen dituzte; irudi horiek kirolaren **kapazitismo** eta **elitismoan** oinarritzen dira, eta, gurata zein gura gabe, pertsona asko (batez ere balio normatiboekin bat ez datozenak) uxatzen dituzte. Hala garatzen da kasu askotan **lodi-fobia**⁷. Irudi horien arriskua da kirol-ortodoxia moduko bat sortzea; alegia, mantra moduko bat, behin eta berriz esaten diguna nolakoak izan behar dugun, nolako gorputza eduki behar dugun eta gorputz hori edukitzeko zer egin behar dugun, horrekin bat ez datozen bizi-estiloak “kriminalizatuta”. Ez da sustatu behar **kirol-gorputzak** zaindu eta kontrolatzeko logika bat, baizik eta **mugitze askean** oinarritutako begirada bat.

Irudi horiek birplanteatu dituen arlo nagusietako bat **aniztasun funtzionala edo desgaitasuna duten pertsonekin** lotutako mugimenduen da, eta, pertsona horiek kirol-praktiketarik at gelditu ordez, kirol-praktikak birplanteatzen saiatzen

dira, pertsona bakoitzaren errealitate funtzionalara egokitzeko, edo, are gehiago, kirol-praktikak eraldatzeko.

Halaber, ezin ditugu ahaztu pentsamendu eta ekintza politikoen korrante berriak, adibidez **queer mugimendua** eta **deskolonizazioaren** aldeko mugimenduak, besteak beste; izan ere, kirol-praktika garaikideak deseraikitzeke ikuspegiarekin, osasun-ideia jakin batekin lotuta, mugitzeko praktika berriak eraikitzen saiatzen dira.

Edonola ere, zalantzarik gabe, gure gorputzak “diseinatuta” daude mugitzeko.

Hala ere, kirol-ohitura osasuntsuen sustapenarekin lotuta, esan beharra dago jarduera fisiko hori, kasu askotan, jarduera fisikoaren gabezia ordezkatzeko agintzen dela, ekonomia eta gizarte sedentarioen ondorioz (etxearen eta lantokiaren arteko distantzia luzeak, garraiobide motordunak erabili behar izatea, lan sedentarioak eta ibilgailu motordunentzat pentsatutako azpiegiturak, besteak beste), eta hori kaltegarria izan daiteke “karga” indibidual bihurtzen dena; izan ere, ez bagara iristen, errudun sentituko gara. Hau da, autoexijentzia bihurtzen da, praktika “autoerrepresiboa”, eta ez askatzailea edo ongizatekoa.

⁷ Oso interesgarria da ARGÜELLES, D., PÉREZ-SAMANIEGO, V., eta LÓPEZ-CAÑADA, E. (2022) egileen artikulua, gehiegizko pisua eta obesitatea dituzten pertsonen kirol-zentroetan jasotzen dituzten iruzkin mingarriei buruzkoa.

Ez da erraza oreka lortzea osasunaren eta kirolaren arloan, baina, zalantzarik gabe, muturreko kasuak ez dira desiragarriak; mutur batean daude estresaren, erruaren eta ondoezaren kontura lortzen dutenak gutxieneko jardura fisikoaren gidalerroetara heltzea (kuantitativoak) –pertsonek, batzuetan, kirolarekin eta kirol-praktikarekin obsesionatu eta **bigorexiarekin**⁸ lotutako arazoak izatera iristen dira–; eta beste muturrean daude kirol-jarduerarik egiten ez duten pertsonak. Erronka handia da kirolean –eta kirolaren bidez– osasuna eta ongizatea sustatzea: kirol-jardunak eguneroko ohitura bilakatu behar dira, dibertigarriak izan behar dute eta edozeinek erraz egiteko modukoak; bestela esanda, gure eguneroko ohituretan sartzea lortu behar da. Eta hori ez da erantzukizun indibidual soilak: egitura-aldaketa eskatzen du.

Azkenik, osasunarekin lotuta aztertu beharreko arloetako bat da arrisku handiko kirolen arloa. Kirol horiek, haien izaeragatik, arriskutsuak dira praktikatzeko dituzten pertsonen osasun eta osotasunarentzat. Arlo horretan, inekitatearen arazoa dute horiek praktikatzeko dituzten HENek, adingabeak direnean, eta zalantzan jartzen dira modalitate horiek praktikatzeko motibazioak eta ongizatea bermatuko duten erabakiak hartzeko gaitasuna.

Halaber, eragin dezaketen beste alderdi batzuetan ere sakondu behar da, osasunarentzat arriskutsuagoak diren kirolak praktikatzeko erabakia intersektionatzen baitute (adina, klase soziala, generoa...), adibidez kontaktu-kiroletan. Fenomeno hori bereziki nabarmena da errugbia eta futbol amerikarra praktikatzeko duten herrialdeetan, baina gure inguruan ere hausnartzen hasiak dira buruko kolpeen eraginari buruz eta horiek ekiditeko moduei buruz; hala, adibidez, futbol ingelesaren kategorietan proiektu pilotu bat jarri dute abian, non jokalariek ezin duten baloia buruz jo, ikusteko ea horrela garuneko kalteak murrizten diren⁹. Nolanahi ere, adibide horrek osasuntsutzat jotzen ditugun kirol-modalitate batzuen arriskuei eta lesionatzeko erraztasunari buruz hausnartzera eramaten gaitu.



⁸ Nahiz eta erreferentzia-eskuburuek oraindik ere ez duten patologia klinikotzat jotzen, gero eta lan zientifiko gehiagok identifikatzen dute bigorexia kirol-ohiturekin lotutako arazo gisa. Ikus, adibide gisa, GUEROLA eta PEJENAU (2017) egileen lan hau.

⁹ <https://elcomercio.pe/deporte-total/futbol-mundial/inglaterra-prohibe-los-cabezazos-en-competencias-de-futbol-de-menores-de-12-anos-rmmd-dtbn-ar-mx-cl-noticia/>

NIRE HEZKUNTZA-TESTUINGURUAN OSASUN PSIKOFISIKOAREKIN LOTUTAKO (IN)EKITATE-ALDERDIAK BIRPLANTEATZEKO ESTRATEGIAK

- EKBL gisa, erreferentzia-eredu izatea kirol-ohitura osasuntsuak sustatzeko orduan, eta, adibidez, modu aktiboan egitea EKBL gisa lanean dihardugun lekurako joan-etorriak, ibilgailu motordunak erabili ordez.
- Gure prestakuntza-saioen moldaketa sustatzea, edonork parte har dezan. Hori ezinezkoa bada, gure saioak berriro diseinatzea, integratzaileak izan daitezen.
- Ongizate psikologikoarekin lotutako alderdiak lantzea, erlaxatzeko edo meditatze saioen bidez, eta EKBL lanean sartzea, lantzen dugun kirol-modalitatea edozein izanda ere.
- Sare sozialetan osasunari eta gorputzen irudiei buruz bidaltzen diren mezuak zalantzan jartzea, irudi horiek zaintzea eta gure gorputza nola ezagutu, errespetatu eta maitatu lantzea.
- Lesionatzen diren pertsonen kopurua eta lesio moten maiztasuna aztertzea.
- Aniztasun funtzionala duten kirolarien adibideak erakustea (erreferenteak sortzeko estrategia beti da interesgarria kasu guztietan).
- ...



NIRE HEZKUNTZA-TESTUINGURUAN OSASUN PSIKOFISIKOAREKIN LOTUTAKO (IN)EKITATE-ALDERDIAK LANTZEKO BALIABIDEAK

- Irakurketa kritikoa: **Jarduera fisikoari buruzko munduko ekintza-plana 2018-2030**.
- Bideoa ikusi. Kirol-ortodoxia zalantzan jartzeko interesa lantzeko, *Friends* telesailaren atal bat ikus daiteke, non pertsonaietako bat, Phoebe, footing egiten hasten den modu ez ortodoxoan, baina dirudienez era dibertigarriagoana¹⁰.
- https://www.gaituzsport.eus/i-d-i/#publicaciones_cientificas
- ...

¹⁰ <https://www.youtube.com/watch?v=O0kqZ2bxGG8>

4.2 Adina, (in)ekitatearen iturri

Kirol-praktikak antolatzeko dimentsio nagusietako bat da, zalantzarik gabe, horiek adinaren arabera antolatzea. Antolakuntza hori adin legalaren arabera sailkapenean oinarritzen da, hau da, pertsona bakoitzak jaiotza-urtearen arabera duen adinean. Hori ez da zalantzan jartzen, eta onartzen dugu adin bereko pertsona guztiek antzeko garapena izan dutela heltze psikologiko eta fisiologikoaren ikuspegitik. Gainera, ezkutatu egiten ditugu adin bereko pertsonen arteko desberdintasunak.

Halaber, kirol-testuinguruetan, ia ez dago —edo ez dago batere— harremanik belaunaldien artean. Hau da, ez dira lantzen belaunaldien arteko ezagutza-, zaintza- eta errespetu-harremanak. Zergatik ez ditugu sortzen belaunaldien arteko lehiaketak? Zergatik arautu behar ditu kirol-kategoriak kirol-lehiaketa guztiak?

Gainera, badirudi kirola betiereko gaztetasunaren formula dela, eta ematen du gazte izatea dela gure gizartearen balio nagusia. Testuinguru

horretan non daude haur eta nerabeak (aurretik HEN) edo adinekoak? Zalantzarik gabe, gure kirol-testuinguruetan eta oro har gizartearen, **adinkeria** da nagusi.

HENei dagokionez, kirol-testuinguruan, helburu nagusia da kirol-modalitate batekin edo batzuekin lotutako lehia- eta mugimendu-kompetentziak garatzea, eta ez hainbeste jolas askea eta gorputz-adierazpena sustatzea. Izan ere, harrobiaren logikan (**harrobiko kirola**), gaur egun, klub, federazio eta erakunde batzuetan, oraindik ere, HEN talentudunak hautemateko eta **kirol-espezializazio goiztiarra** garatzeko logikak lantzen jarraitzen dute, nahiz eta literatura zientifikoak azpimarratzen duen logika hori kaltegarria dela, baita errendimendu handiko kirol-ibilbide bat izan nahi dutenentzat ere (ikus *Usabiagak* eta *Yancik 2023*an koordinatutako txosten teknikoak). Hala ere, harrobiaren analogiarekin jarraitzeko, ahaztu egiten zaigu harrobiak direla esplotazioaren logikaren adibide argienak, non, materia preziatua lortzeko xedearekin, ingurune naturala suntsitzen den. Era berean, kirol-testuinguruaren kasuan, ez dakigu zenbat HEN gelditzen diren





kirol-modalitate batetik kanpo (batez ere ez iza-teagatik bereziki lehiakorrek) HEN talentudunak aurkitu ahal izateko.

Halaber, HENen gaiarekin jarraitzeko, hausnartetarako moduko gai bat da ea nolakoa den kirol-jarduera antolatu eta lehiakorren antolakuntza, kontuan izanda jardueren dinamizazioa HEN kirolariak baino nagusiagoak diren entrenatzaileen esku egoten dela gehienetan (ez beti). Nolakoak dira autoritate-harremanak? Zein da gobernantza-eredua? HENen parte-hartze aktiboa sustatzen da kirol-jardueren planifikazio eta garapenean? Kasu askotan, antza denez, despotismo ilustratu moduko bat dago, non HENentzako kirol-jarduerak sustatzen diren haiek kontuan hartu gabe.

Zalantzarik gabe, kirol-testuinguruek HENentzako ongizate eta garapen integraleko testuinguruak izan behar dute; beraz, HNIOBLaren eta hura Euskadiko testuingurura egokitzearen esparruan egindako urrats guztiak norabide horretako urrats gisa ikusi behar dira¹¹.

Adinekoen kasuan, gero eta gehiago jartzen da zalantzan oso errotuta egon den uste bat: hau da, kirol-jarduera jakin batzuk ez direla egokiak haien adinerako. Egoera fisikoaren ikuspuntutik, inork ez du zalantzan jartzen kirol-jarduerak garrantzitsuak direla sistema kardiobaskularra aktibo mantentzeko, baina, azkenaldian, indar-jarduerak ere garrantzitsutzat jotzen dira, batez ere

zahartzearekin lotutako arazoak prebenitzeko, adibidez osteoporosia.

Halaber, zalantzarik gabe, adinekoen kasuan, kirol-praktika aukera paregabea da sozializatzeko eta bakardade-egoerak ekiditeko, egoera horiek ondorioak izaten baitituzte haien ongizate psikologikoan.

Helduei dagokienez, oro har, aro horretan adin-tarteen arabera egoten diren errealitateak askotarikoak direla alde batera utzi gabe, aro horretako elementu azpimarragarri eta berezko bat da zaila gertatu ohi dela oreka lortzea kirol-jarduera txertatu ahal izateko lan- edo ikasketa-denboraren, familia-erantzukizunetarako denboraren eta aisialdirako denboraren artean. Horrek, ezbairik gabe, klase sozialaren dimentsioarekin intersektionatzen du, gutxienez bi mailatan. Lehen mailan, kirol-praktikarako aisialdi-denbora edukitzea ala ez, eta, bestetik, kirol-praktikarekin lotutako gastuak ordaindu ahal izatea, adibidez kirol-instalazioetako abonuen edo sarrerak. Azken egoera horri begira, tradizionalki, hirugarren adinekoentzat bideratu izan dira kirol-instalazio publikoetarako abonuen gastuaren ehuneko bat ordaintzeko erabili diren laguntza publikoen zati handi bat, nahiz eta gaur egun, adineko askoren erosteko ahalmena lanean ari diren pertsona askorena baino handiagoa izan. Agian, beste irizpide batzuk planteatu beharko lirake, adibidez pertsonen diru-sarrerak.

¹¹ <https://www.euskadi.eus/publicaciones-kirol-eskola/web01-a2kiesko/es/>.

NIRE HEZKUNTZA-TESTUINGURUAN ADINAREKIN LOTUTAKO (IN)EKITATE-ALDERDIAK BIRPLANTEATZEKO ESTRATEGIAK

- EKBL gisa, zeintzuk dira adinari buruz ditudan aurreiritziak, oro har, eta, zehazki, kirol-praktikari buruz? Nola eragiten dute aurreiritziok EKBL gisa egiten dudana lanean?
- HENekin lan egitean, interesgarria izan daiteke gure EKBL lanaren zentzu hierarkikoa birplanteatzea eta saioak dinamizatzeko beste sistema batzuk aplikatzea, HENei berei emanda saioak dinamizatzeko ahotsa eta erantzukizuna.
- Saioak diseinatzea zenbait belaunalditako pertsonekin.
- Adineko kirolarien adibideak erakustea (erreferenteak sortzeko estrategia beti da interesgarria kasu guztietan).
- HENen psikologia ebolutiboarekin lotutako alderdietan sakontzea, entrenatzeko gure estiloa hobeto egokitu ahal izateko (besteak beste, adibide bat jartzearren, haur txikienean kasuan, jaramonik egiten ez digutenean eta gure autoritatea zalantzan jartzen dutenean, horrek gudan frustraziorik eta haserrikerik ez sortzeko, jakitea jarrera horiek oso berezkoak dituela haurtzarokoak eta lotura dutela adin-tarte horretan haurrek arreta jartzeko izaten duten zailtasunarekin).
- Pertsonen zahartzearekin lotutako errealitateak jorratzen ikastea — adibidez, menopausia, emakumeen kasuan— egoera horiek ez daitezen izan kirola egiteari uzteko arrazoi.
- ...

NIRE HEZKUNTZA-TESTUINGURUAN ADINAREKIN LOTUTAKO (IN)EKITATE-ALDERDIAK LANTZEKO BALIABIDEAK

- Irakurketa interesgarria:
<https://creativeinsights.gettyimages.com/es/tendencias/realidad/desafiando-la-discriminacion-por-edad-en-el-deporte>
- <https://thecpsu.org.uk/>
- ...



4.3 Genero-(in)ekitatea. Kirola endekatu edo birsortu?

Adinarekin batera, generoa da kirol-praktikak antolatzeko dimentsio nagusietako bat, baina, hura ez bezala, generoa zalantzan jartzen dute zenbait ikuspuntutatik.


Zalantza eta eztabaida nagusia antolakuntza-sistema horren oinarri biologikoa (sexua) eta kulturala (generoa) dira. Oro har, arlo akademiko-zientifikoa erabateko onarpena ez izan arren, Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, hau da **sexua**: “arra eta emea bereizten dituen ez-ugarri fisikoen multzoa”. Aldiz, **generoa** zera da, “kultura jakin batean, norbait gizasemetzat edo emakumetzat hartzeko, kontuan hartzen diren ezaugarrien, jarreraren eta eginkizunen multzoa”.

Beraz, kategoria femenino eta maskulinoak dira kirol-praktikak antolatzeko sistema ohikoenetako batzuk. Gutzik jartzen dute zalantzan sistema hori, eta “naturalizat” ere jotzen dute. Kasu askotan, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko kolektibo askoren desira da, zehazki, bi kategoriak berdintzea, baina fusionatu gabe, adibidez kategoria mistoak sortuz. Nolanahi ere,

ez dituzte zalantzan jartzen, eta ez dituzte eraldatu nahi, kirol-errealitate alternatibo berriak sortzeko. Badirudi paradoxa moduko bat sortzen dela: berdintasunaren aldeko aurrerapenak lortu ordez, desberdinkeria hori erreproduzitu duen sistema kronifikatzen da, ziur aski ez jorratzeagatik desberdinkeria eta errealitate **sexista** hori eragin duten arrazoiak. Beraz, **kirol-modalitate sexuatuak** leudeke, kirol-modalitate batzuetan federatutako emakume eta gizonen generoen arteko neurritz kanpoko desberdintasunak direla eta (ikusi **10. irudia**, jarraian).

Zergatik ez dira parekatzen kirolarien arteko alde horiek? Ziur aski, aldeek zerikusia dute kirol-egitura sexuatuari lotutako kontuekin eta “neskentzako” nahiz “mutilentzako” modalitateekin lotutako irudiak sortzen dituzten alderdi soziokulturalekin (puntu honetan, gogora ekartzen dugu futbol-zuzendari batek esan zuena: “futbol femeninoa ez da ez futbola, ez femeninoa”).

Gizartean gertatzen den moduan, kirola ere **Connellek** (1987) **genero-ordena** edo **-erregimen** izendatu zuenaren arabera egituratzen da, non **maskulinitasun** hegemonikoa nagusitzen den beste edozein genero-errealitatearen aurrean. Hau da,



Fuente: MCUD. CSD. Estadística de Deporte Federado
La información que aquí se ofrece fue actualizada el 25-05-2023
Puede acceder a la última información disponible para cada indicador, ampliar los resultados ofrecidos y consultar los detalles metodológicos de esta operación estadística en el área dedicada al deporte federado de la base de datos estadísticos deportivos **DEPORTEData**

10. IRUDIA. Lizentzia federatuak, sexuaren eta federazioaren arabera, 2022.

Iturria: <https://www.culturaydeporte.gob.es/dam/jcr:4b866486-1c11-4dc4-a528-8611c431a7e7/licencias-federadas-por-sexo.pdf>.

horren arabera, kirol-praktika baliotsuenak izango lirateke gizon zuri, **zisgenero** eta heterosexualei dagozkienak. Pertsona horiek dira **heteroarauaren** esparruan sartuko liratekeenak, eta, sistema edo sinesmen kultural horren arabera, *"pertsonak sexu eta genero bakar eta osagarrietan sartzen dira, eta heterosexualitatea da orientazio sexual normatiboa"*¹². Beraz, *"sexua modu biologikoan lerrotzen da, sexualitatearekin, genero-nortasunarekin eta genero-adierazpenarekin"*, eta horrekin bat ez datozen errealitate guztiak **queer** pertsonen zakuan sartzen dira.

Hala ere, kirol-sistemak aurre egin behar izaten die barneratutako sexismo-, **homofobia-** eta **transfobia-egoerei**, eta, kasu askotan, horiek ez dituzte jotzen inekitate-iturri gisa, baizik eta kirola antolatze (eta antolatu behar den) moduaren berezko ezaugarri natural gisa. Ondorioz, *"ez zaitez marikakatia izan"*, *"zelako mari-mutila"*, *"maritxu nazkagarria"* eta antzekoak entzuten dira oraindik ere, kirol-praktika batzuk indarra-ekin, agresibitatearekin, ausardiarekin, gizotasunarekin eta sufritzeko gaitasunarekin identifikatzen direlako, hau da, heteroarauaren barruan sartzen diren gizonen irudiarekin. Gainera, feminitatearekin identifikatutako beste balio estetiko, artistiko, lirain eta sentikorrago batzuk gutxien dituzte. Mikro-indarkeria eta kontrol sozialeko mekanismo horien ondorioz, kirol-praktika sexuatuak daude *"bakoitza dagokion tokian"* sartzeko, aurreko 10. irudian ikusi dugun moduan.

Emakumeen eta LGTBQ⁺¹³ kolektiboko pertsonen artean, babesteko estrategia gisa, ohikoa da **"kirol-babeslekuak"** sortzea, hau da, soilik kolektiboko pertsonen zuzendutako talde, lehiaketa eta kirol-instalazioak, kirol-testuinguruetan eroso sentitzeko eta erasoetatik babesteko. Zalantzarik gabe, estrategia horiek aukera ematen diete pertsona askori kirola egiteko, bestela ez bailukete egingo. Hala ere, zera galdetu behar diogu geure buruari: estrategia horien bidez lor daiteke indarkeriarik gabeko gizarte justuago bat?

Generoari dagokionez, ezin dugu alde batera utzi **aldagelen** garrantzia; izan ere, orain arte, sexualitate bitarraren eskemaren arabera antolatu dira, eta heteroarauan sartzen ez diren perso-



nek, oro har, eta pertsona intersexual, transexual eta ez bitarrek, zehazki, egoera gogor eta baztertzailak bizitzen jarraitzen dute, espazio horietan gure intimitateari eta gure gorputzari buruz ikasten baitugu, alde aurreko lanketa pedagogikorik gabe, gehienetan, eta segurutzat jotzen ditugu sexualitateari, gorputzari eta afektuei buruzko kontu gehiegi. Alde horretatik, intimitatea kudeatzeko espazio indibidualak sustatzeko baliabide arkitektonikoak egokiak izan daitezke, konponbideetako bat hori izan daiteke, baina ez dut uste konponbide bakarra edo nagusia denik; izan ere, gure gorputzak eta gainerakoenak, orientazio sexuala eta genero-adierazpena errespetatzen irakasteko aukera pedagogikoak gal daitezke.

¹² https://formaciondeportiva.gva.es/documents/163982956/372942879/guia_lgtbi_junio_2023_c.pdf/6f853842-1a1c-7da6-85dd-32da2b93e99d?t=1687775672672.

¹³ **Akronimoa:** lesbianak, gayak, trans, bisexualak, intersex, queer eta beste errealitate batzuk.

NIRE HEZKUNTZA-TESTUINGURUAN GENEROAREKIN LOTUTAKO (IN)EKITATE-ALDERDIAK BIRPLANTEATZEKO ESTRATEGIAK

- Neskato/neska/emakumeei eta mutiko/mutil/gizonei mezu berak bidaltzen dizkiezu eta hezkuntza-estilo bera erabiltzen duzu guztiekin?
- Nola lantzen duzu intimitateen kudeaketa aldageletan? Zure proiektu pedagogikoak aldagelen kudeaketa jorratzen du?
- Soilik nesken edo mutilen talde bateko entrenatzailea izango bazina, zer egingo zenuke beste sexuko pertsona batek taldean sartu nahiko balu?



NIRE HEZKUNTZA-TESTUINGURUAN GENEROAREKIN LOTUTAKO (IN)EKITATE-ALDERDIAK LANTZEKO BALIABIDEAK

- Bideoa ikusi: Carki Productions: *Zer da sexu-aniztasuna? Azalpen erraz.* <https://www.youtube.com/watch?v=1QbTZYiQ6BA>
- ADI LGTBI+ PERTSONENTZAKO KIROL INKLUSIBOAREN GIDA. https://adilgtb.org/wp-content/uploads/GUI%CC%81A_ACTUALIZACION-SEPTIEMBRE_2018.pdf
- AFES ikerketa-taldea (Universitat de València): *Gida teoriko-praktikoa: Kirola, inklusioa eta LGTBI aniztasuna.* https://formaciondeportiva.gva.es/documents/163982956/372942879/guia_lgtbi_junio_2023_c.pdf/6f853842-1a1c-7da6-85dd-32da2b93e99d?t=1687775672672
- AFES ikerketa-taldea (Universitat de València): *Aniztasunak jarduera fisikoan eta kirolean.* Esteka: https://www.uv.es/diversitats/Guia_cast
- Naizen: *Gida azkarra: Haur eta gazteen transexualitatearen arreta kirolean eta aisialdia.* https://naizen.eus/wp-content/uploads/2022/06/CAPV_Gida_cas.pdf
- ...



4.4 Etnia-arrazalizioa eta erlijioa, kiroleko inklusio-erronka

Kirolaren onuretako bat kohesio sozialerako tresna bikaina izatea da, baina baieztapen horrek oinarri mitologiko gehiago du ebidentzia zientifikoa baino. Hala ere, egiatan, kirol-testuinguruak kohesio sozialerako eta horren aurkakorako tresna izan daiteke.

Gure kirol-praktikak, konturatu ala ez, praktika kulturalak dira, eta ez dituzte berdin bizitzen etnia eta kultura guztiek. Hau da, geuk modu jakin batean interpretatu eta praktikatzan dugu kirola, baina horrek ez du esan nahi pertsona guztiek berdin egiten dutenik. Beraz, kirola izatez ona dela dioen ideia unibertsal horrek ez du zertan izan mundu osoan onartutako premisa. Halaber, gure inguruko kirol-modalitate ohikoenak ez dira zertan ohikoenak izan immigranteen jatorrizko herrialdeetan (cricketa da horren adibide interesgarri bat, sustrai sakonak baititu EAEko pakistandarren artean), eta guk, EKBL gisa, erabaki behar dugu modalitate horiek gure lanean sartu ala ez.

Ekitate etno-kulturalaren aldetik, erronka da geure buruari galdetzea, gizarte gisa, zer egin dezakegun pertsonak kirol-ohitura osasuntsuak garatu ditzaten, sentikorrak izanda haien baliio eta sinesmenekin. Edonola ere, ez da erraza kontu hori ebaztea. Horren adibide dira emakume musulmanak –gero eta ohikoagoak gure gizarteetan–; izan ere, kirola egiteko berariazko jantziaren bat (beloa) edo sexu bakarreko kirol-testuinguruak behar dituzte. Onargarria da jantzi horiek erabiltzea? Sexuaren arabera bereizitako espazioak eskaini behar dira emakume horiek kirola egin ahal izateko? Ez da erraza erabaki horiek hartzeko irizpideak finkatzea, baina, zalantzarik gabe, erantzuna ezin da oinarritu beste errealitate batzuk ukatzean edo lehen pertsonako inposaketa arbitrarioetan (EKBLak, kirol-instalazioetako teknikariak, etab.), horrek **islamofobia** eragin baitezake. Mota horretako dilema etno-kulturalak hitz eginez eta irudimenarekin konpondu behar dira, justizia soziala bermatzeko kirolean eta kirolaren bidez.

Beraz, gure kirol-sistemaren irisgarritasunari eta egokitze gaitasunari dagokienez, beharrezkoa da errealitate horiek onartzeko eta “bestearekin”

ikasteko prest egotea; izan ere, kasu askotan, deseroso eta arriskutsutzat jotzen ditugu errealitate horiek, gure bizimodua zalantzan jartzen baitute. Hori gauza on edo txar gisa ikus daiteke, arrisku edo aberasgarri gisa. Dagoeneko aipatu dugu zer ikuspegitatik jorra dezakegun gero eta nabarragoak diren gizartearen errealitatea (halaxe da gurea). Ezbairik gabe, gure erronka da errealitate askotariko horien inklusioa lortzea, nahiz eta ez den helburu erraza.

Zailtasun horren adibideetako bat da “gutxiengoaren” beste hizkuntza edo beste **hizkuntza gutxitu** batzuekiko sentikortasuna eta aintzatespena; are, gure kasuan, bi hizkuntza ofizial baititugu eta euskara erabiltzeko zailtasunak egoten baitira EAEn duen errealitate soziolinguistikoaren ondorioz¹⁴: izan ere, besteak beste, euskaldun guztiek dakite gaztelaniaz, baina ez alderantziz, eta immigrante askoren ama-hizkuntza gaztelania da. Testuinguru horretan, “gutxiengoaren” hizkuntzei sentikortasun handiagoa eman arren, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea erronka gehigarria da, eta laguntza edo oztopo izan daiteke beste hizkuntza batzuekiko sentikortasunez jokatzeko eta beste gutxiengo batzuen



¹⁴ https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2022/05/01_Txosten_laburtua_web_CAST-1.pdf

integrazioa bultzatzeko. Gainera, euskaldunek euskaldunak ez direnekin bizi duten **linguizismoa** erreproduzitzeko arriskua dago. Kontu hori bereziki konplexua da Euskadiko hizkuntza ofizialetako bat (gaztelania) menderatzen duten immigranteak euskararekin harremanetan jartzea helburu denean. Nolanahi ere, zalantzarik gabe, kirol-testuinguruak ere sentikorak izan daitezke, eta izan beharko lukete, pertsonen errealitate soziolingüistikoekin.

Kirol-testuinguruetan (in)ekitatea lantzeko, garrantzi handiko beste elementu bat maila guztietako lehiaketen antolakuntza da. Aurretik adierazi dugun moduan, **inklusioa** da pertsona-talde bat edo batzuk beste talde baten barruan sartzea, taldearen osaera aldatzea eta jatorrizko taldeen arteko interakzioa eta fusioa sustatzea. Beraz, nola susta daiteke inklusioa taldeen arteko norgehiagokan oinarritzen diren lehiaketen bidez? Agian, batez ere gazteenekin, interesgarria izango litzateke kirol-lehiaketak taldeak nahasiz konfiguratzeko, hartara aurre egin ahal izateko pertsona bakoitzaren **barne-taldearen** eta **kanpo-taldearen** arteko ohiko norgehiagoka-eskemei. Noski, gure kirol-sistema antolatzeke ohiko formatuak deseraikitzeke ideia hori ez da formula magiko bat. Are gehiago, kaltegarria ere izan daiteke, lan egiteko moduaren arabera.

Kirola birplanteatzeko asmo horren azpiko ideia-aren arabera, zaila izango da gure hezkuntza-testuinguruetan (in)ekitate-iturriei aurre egitea ez baditugu aldatzen gure begirada eta jokatzeko modua. Nolanahi ere, zaila da integrazioa eta kohesioa lantzea gizarte multikulturaletan, arazoaren oinarria joan gabe eta gure jokabidea zalantzan jarri gabe, **tokenistatzat** jo daitezkeen azaleko ekintzetara mugatuta (adibidez, arrazismoaren aurkako ongintzazko partida bat antolatzea taldean aniztasun soziala islatu gabe), horrela ez baita inondik inora ere jorratzen **arrazismo instituzionala** deitzen dioten hori –kirol-erakundeetan ere halakorik badagoelako–.

Agian horregatik, zalantzan jarri behar da kirol-praktika batzuk **berriro tradizional** bihurtzeko interesa, tradizio oro uneren batean sortu delako: zergatik ez ditugu eraikitzen kirol-tradizio berriak, edo egungoak birplanteatu, jatorri etno-kultural desberdinetako pertsonen arteko kohesio soziala ahalbidetzeko, baina kirol-tradizio propioak ahaztu gabe, gure kasuan, adibidez, **Herri Kiro-lak** ditugun moduan? Ez da erraza zonbi-tradizio baten eta berrikuntza bizi eta sustraitu baten arteko oreka lortzea, baina, edonola ere, ezinbestekoa dugu gure gizarteak gero eta nabarragoak direla aintzat hartzea, aniztasun hori integratzeko, eta ez baztertzeke.



NIRE HEZKUNTZA-TESTUINGURUAN ANIZTASUN ETNO-KULTURALAREKIN LOTUTAKO (IN)EKITATE-ALDERDIAK BIRPLANTEATZEKO ESTRATEGIAK

- Edozein mailatako kirol-talderen bateko entrenatzaile gisa, noizbait planteatu duzu talde desberdinetako jokalaria nahastea?
- Noizbait hausnartu duzu zure taldeko immigranteen jatorrizko herrialdeetako kirol-praktikei buruz? Planteatu duzu modalitate horiek hobetu ezagutu eta zure EKBL lanean sartzea?
- Zuzen ahoskatzen dituzu zure taldeko pertsona guztien izen-abizenak? Ez
- bada hala, uste duzu ahaleginak egin dituzula eta horiek zuzen ahoskatzen ikasteko sentsibiltatea erakutsi duzula? "Konponbide" errazen alde egin duzu, adibidez ezizenak ipinita?
- Gai zara eskolak gaztelaniaz eta euskaraz emateko? Ahaleginak egiten dituzu koofizialak ez izan arren taldeko pertsonak erabiltzen dituzten beste hizkuntza batzuetako hitzak ikasteko?
- ...

ANIZTASUN ETNO-KULTURALAREKIN LOTUTAKO (IN)EKITATEA LANTZEKO BALIABIDEAK?

- 19/2007 Legea, uztailaren 11koa, kirol-ikuskizunetan egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkakoa:
- <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-13408>
- ...



4.5 Kirol-praktika, klase sozialaren kontua?

Gaur egungo gizartean, ahalegin indibidual eta indibidualizatzaileen filosofia da nagusi, “*nahi baduzu ahal duzu*” leloan oinarrituta; bada, kasu askotan, hori ez da egia; aitzitik, gero eta egia-goa da kontrakoa; alegia, esatea “*nahi baduzu ahal duzu*” (hots, zure esku dagoela), edo, beste modu batean azalduta, gure klase sozialak gure ohiturak baldintzatzen ez dituela, kirol-ohiturak barne, haizearen kontra ibiltzea da, oro har, eta are gehiago kirol-testuinguruetan.

Kirola iruditeria kolektiboaren oinarri bihurtu da, eta laguntza psikologikoa ere **kirol bihurtu** da, *coaching* delakoaren eskutik. Badirudi ez dela existitzen egiturazko baldintzatzailearik; gure ahalegina nolakoa, halakoa dela patuaren arrakasta. Zientzia sozialek (albiste berrienak ikusi besterik ez dago¹⁵) urteak daramatzate egiturazko baldintzatzaileak aztertzen, desberdinkeria sozialen erantzun meritokratikoak zalantzan jartzeko.

Kirol-testuinguruan, *Bordieuren* (2000) lana nabarmentzen da: argi eta garbi deskribatu zuen klase sozialak praktika sozial guztiak baldintza-

tzen dituela, kirola barne, noski. Adibide grafiko bat jartzearen, guztiok dugu eskiatzeko aukera? Edo hipika egiteko aukera? Edo golf-klub pribatu bateko kide izateko aukera? Oztopo material horrek berorrek mugimendu-konpetentzia batzuk eskuratzea baldintzatzen du: beraz, pentsa liteke, halaber, klase bakoitzak baduela berezko **mugikortasun-kapital** bat. Eta, ondorioz, pentsatzekoa da, era berean, klase sozialak mugimendu-inekitatea sortzeko arriskua baldintzatzen duela?

Oro har gizartean gertatzen den moduan, kirolean ere badago **klasismoa**, guztiok ez baitauek erosteko ahalmen berdina. Egia da gure testuinguruan kirol-praktika eskubidetzat jotzen dela, eta, ikuspuntu horretatik, kirola egin ahal izateko oztopo ekonomikoak murriztea da helburua. Hala ere, BORDIEUK (2000) adierazi zuen moduan, klase soziala, baldintzatzaile materiala izateaz gain, baldintza immateriala ere bada: izan ere, “gustu” bereizi batzuk “inprimatzen” ditu, pertsona bat besteengandik bereizteko, klasearen arabera. Materialen eta kirol-eskaintzaren “**decathlonizazioaren**” ondorioz arrakala hori murriztu egin dela dirudien arren, aldatu besterik ez da egin, oro har gure kontsumo-ereduak aldatu diren moduan.



¹⁵ https://www.eldiario.es/sociedad/ascensor-social-educacion-roto-vidas-marcadas-codigo-postal-cuna_1_10347009.html

Kirolarekin lotutako beste alderdi batek zerikusia du honako bi elementu hauen arteko balizko korrelazioarekin (eta balizkoa diot ez dudalako topatu azterlan eztaba daezinik): alde batetik, lan mota –karga fisiko handiagoa eta lan-baldintza txarragoak (zaintzen sektorea, garbiketa, garraioa...) edo karga fisiko txikiagoa eta lan-baldintza hobeak (administrariak, hezkuntzako eta osasuneko profesionalak...)– eta, bestetik, aisialdian edo lanerako bidean egindako kirola. Zalantzarik gabe, kontziliatzeko zailtasun handiagoen eta horrek HENak eta familiako mendeko pertsonak zaintzeko inplikazioen ondorioz, lan fisikoak eta kalitate txarrekoak dituztenek denbora eta baliabide ekonomiko gutxiago izango dituzte kirol-praktika osasuntsuan inbertitzeko, eta, horrez gain, gaitzakeria eta neke fisiko handiagoak izan ohi dituzte, lanagatik. Aldiz, karga fisiko txikiagoko eta kalitate hobeko lanak dituztenek, ziur aski, aukera gehiago dituzte kontziliatzeko, baita baliabide gehiago ere, lanpostuan egiten ez duten jarduera fisikoan inbertitzeko.

Klase sozialarekin eta kirolarekin lotutako beste inekitate-iturri bat kirol batzuen eraginean topa dezakegu, batez ere sustrai sakonagoak eta oihartzun mediatiko handiagoa dituztenetan eta gure inguruan futbola da horietako bat, izan ere, HEN askok kirolari profesional izateko duten ametsa amesgaizto bihurtzen baitute (Aldaz, 2020). Behe-mailako klaseko HEN askorentzat amets bat da, baina, eskala sozialean, ongizatean eta ikasketen mailan gora egiteko bidea izan beharrean, kontrakoa gertatzen da. Kirolari profesional izatera heltzeko ametsak ezin du, inolaz ere, HENen interes gorena lortzearen aurka egin. Beraz, lehen aipatu dugun harrobiko kirolaren ideia itzul gaitzeki: HEN bakanen baten bere kirol-ametsa lortzeko bidea ezin da izan beste askoren amesgaiztorako bide.

Azkenik, zalantzan jarri behar ditugu kirolaren sektoreko lan-baldintzak eta arauketa; izan ere, borondatezko lana eta lan prekarizatua izan da sektorearen oinarria orain arte. Duela gutxi, *Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legea* onetsi ondoren, sektorea arautzearen aldeko urratsak egin dira. Nolanahi ere, aurrera egin behar da kiroleko lanbideak aintzatezteko, arlo horretan eta beste batzuetan borondatezko lanak duen garrantzia gutxietsi gabe, sektoreko profesionalen kalitatezko prestakuntza eta lan-baldintzak bermatzeko eta lan-intrusismoa zaindu eta kontrolatzeko bidean.



NIRE HEZKUNTZA-TESTUINGURUAN KLASE SOZIALAREKIN LOTUTAKO (IN)EKITATE-ALDERDIAK BIRPLANTEATZEKO ESTRATEGIAK

- Gure kirol-eskaintzaren doakotasunaren alde lan egitea eta finantzaketa publiko nahiz pribatua bilatzea.
- Egungo laguntza ekonomikoak ezagutzea, zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonen kirolean sartzen laguntzeko
- Gure inguruko errealitate sozioekonomikoa ezagutzea eta gure hezkuntza- eta kirol-testuinguruan duen irudikapenari buruz hausnartzea. Bat datoz? Ez datoz bat? Zergatik?
- Lan-baldintza egokiak ezagutu eta eskatzea, *Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legean* oinarrituta.
- ...



KLASE SOZIALAREKIN LOTUTAKO (IN)EKITATEA LANTZEKO BALIABIDEAK?

- *8/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa.* https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2022-14085

5 ONDORIO OSATUGABEAK

Orain arte adierazi dugun moduan, kiroleko (in) ekitatearekin lotutako kontuak jorratzea gai konplexua, bizia eta paradoxikoa da.

Konplexua da gizartea gero eta nabarragoa delako eta kohesio sozialerako erronka garrantzitsuak dituelako; hala, ezinezkoa da horiek jorratzea aldebakarreko konponbide sinpleekin. Ekitatearekin lotutako erronkak jorratzeko, kirolean eta kirolaren bidez konplexutasun hori onartu eta kudeatu behar da.

Horregatik, lan-dokumentu honen moduan, kirol-testuinguruan ekitatea sustatzeko eta gaiari buruzko ikerketak bultzatzeko lanak bizia izan behar du, etengabe abian egon eta ikasteko prest izan. Lan honek eta beste argitalpen berri batzuek (Cunningham, 2023; Fletcher eta Dasher, 2014; Lynch, Walton-Fisette eta Lugueti, 2022; Staurowsky eta Hart, 2023; eta Stidder eta Hayes, 2013) agerian jartzen dute gero eta interes handiagoa eta biziagoa dagoela kirolean ekitatearen ikuspegia txertatzeko, haren garrantziaz jabetuta. Hala ere, aipatutako lite-

ratura zientifikoan azpimarratzen den moduan, ezinezkoak dira konponbide bakar eta unibertsalak, denontzat eta edozein denbora- eta espazio-testuingurutarako baliozkoak. Kirolean eta kirolaren bidez ekitatea sustatzeko lana etengabe egin behar da, ia alerta-egoeran egin ere, une bakoitzean aurrean izango ditugun erronkez jabetzeko.

Eta paradoxikoa ere bada; izan ere, askotan, ez da erraza oreka lortzea kirol-praktika sustatzearen eta beste ekitate-alderdi batzuetan aurrera egitearen artean. Ohiko adibideak dira hezkuntza-testuinguruetako proiektuak, non kirol-modalitatearen batean talde mistoak osatuz genero-ekitatea sustatzen saiatu arren nesken praktikak behera egin duen horren ondorioz. Horietako askok generoaren arabera bereizitako taldeetara itzultzea erabaki dute. Zein izango litzateke konponbiderik onena? Galdera horren erantzuna testuinguruaren eta epe labur, ertain eta luzean lortu nahi diren helburuen mende dago.





Halaber, badago lan honetan aztertu ez dugun beste adibide konplexu bat, baina, zalantzarik gabe, berariazko lan bat beharko luke: askatasunik gabeko pertsonak. Nola lan egin beharko genuke askatasunik gabeko pertsonekin? Nola hautsi genitzake pertsona horiez eta beste kolektibo berezi batzuek dauzkagun aurreiritziak eta oztopo burokratikoak? Zein da kirolaren rola pertsona horiek berriro gizarteratzeko prozesuan?

Hitz batez, orientazio ekitaktiboa duten EKBLek apaltasun-ariketa erradikal gisa egin behar dute lan, eta prest izan ikasteko eta aldatzeko kirol-irakaskuntzaren bidez. Kontuan hartu behar dute haiek eta EKBL gisa partekatuko dituzten kirol-testuinguruetakoko pertsonak ez direla soilik haurrak, nerabeak, helduak, adinekoak, emakumeak, gizonak, pertsona ez bitarrak edo aniztasun funtzionala duten pertsonak; ezaugarri horien guztien eta beste askoren konbinazio partikularrak dira. Hau da, aintzat hartu behar dugu hemen proposatutako dimentsioetan oinarritzen diren "konponbide" orokorrak humanizatu egin behar direla beti, eta aurpegia jarri behar zaio errealitate partikular bakoitzari. Bestela, nahita edo nahi gabe, laguntza eman ordez ondoeza eragingo diegu pertsona batzuei.

Gainera, EKBLen lanak, ahal den neurrian, gertuko hezkuntza- eta kirol-testuingurua gaingitu behar du, eta ateak ireki inguruneari, errealitate sozio-demografikoa ezagutzeko eta, beste behin, ahal den neurrian, eragin positiboa izateko, lanaren bidez. Norekin egiten dut lan EKBL gisa? Nire lana bat dator nire inguruneke errealitate

askotarikoarekin? Zerbait egin dezaket pertsona gehiagorengana iristeko? Zein erakunderekin (eskola, zerbitzu sozialak, GKEak...) koordinatu naiteke pertsona gehiagorengana iristeko? Galdera horiek eta antzeko beste batzuk erantzun beharko lituzkete ikuspegi ekitaktiboa duten EKBLek.

Nahiz eta gaur egungo azterlan diagnostikoek ez diguten aukera ematen kirol-praktikarekin lotutako inekitate-iturrietan sakontzeko eta, ondorioz, gure diagnostikoetan eta esku hartzeko ikuspegietan estereotipoak eta aurreiritziak erreproduzitzeko arriskua dagoen arren, badirudi kirol-praktiketan inekitate-arazoak sortu, erreproduzitu edo anplifikatzen direla, baina, aldi berean, arazo horiek deuseztatu edo gutxienez murrizteko testuinguru eraldatzailerak ere badira. Horretarako, hala ere, helburu horiek modu kontzientean finkatu behar dira, edo, bestela, ez dira lortuko besterik gabe kirol-proiektu bat abian jartzeagatik.

Azkenik, amaierako hausnarketa gisa, galdetu behar dugu ea kirolean eta kirolaren bidez gizarte ekitaktibo baten alde egin daitekeen, kirolaren zentzua bera birplanteatu gabe. Bestela esanda, ekitatearen alde egin daiteke lehian eta lehiakortasunean oinarritutako kirolaren bidez? Orain arte adierazi dugun moduan, erantzuna ez da erraza. Edonola ere, hausnarketarako azken gai gisa, geure buruari galdetu beharko genioke ea zer diren gure ustez kirol-testuinguruak: inekitate sozialaren iturriak erreproduzitzeko testuinguru edo horiek eraldatzeko testuinguru.

6 ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Aldaz, J. (2020). *Cuando el sueño de ser deportista de élite se puede convertir en pesadilla. Análisis crítico de las violencias en torno a los menores deportistas en itinerarios de alto rendimiento y de los mecanismos existentes para su protección*. En Pérez, Al., eta de la Mata, N. (Eds.). *La integración social del/la menor víctima a partir de la tutela penal reforzada*. Thompson Reuters Aranzadi.
- Aldaz, J., Asurmendi, U., & Iturrioz, I. (2018). *¿Avanzamos hacia sociedades más EquitActivas? La experiencia guipuzcoana en materia política deportiva ante un reto global complejo*. S. Romero & Y. Lázaro (ed.), *Deporte y sociedad: una aproximación desde el fenómeno del ocio* (or.: 101-119). Deustuko Unibertsitatea.
- Argüelles, D., Pérez-Samaniego, V., eta López-Cañada, E. (2022). *"Do you find it normal to be so fat?" Weight stigma in obese gym users*. International Review for the Sociology of Sport, 57(7), 1095–1116. <https://doi.org/10.1177/10126902211056867>
- Bourdieu, P. (1991). *El sentido práctico*. Taurus.
- Bourdieu, P. (2000). *La distinción*. Taurus.
- Bourdieu, P. y Passeron, J. C. (1977). *La reproducción: elementos para una teoría del sistema de enseñanza*. Laia.
- Coalter, F. (2007). A wider social role for sport. Who's keeping the score? Routledge.
- Consejo De Europa. Sport For All: <https://edoc.coe.int/en/384-sport-for-all>
- Connell, R.W. (1987). *Gender and Power: Society, the Person and Sexual Politics*. Polity Press.
- Crenshaw, K. (1989). *"Demarginalizing the Intersection of Race and Sex: A Black Feminist Critique of Antidiscrimination Doctrine, Feminist Theory, and Antiracist Politics"*. University of Chicago Legal Forum 1989, zk. 1: 139–167.
- Cunningham, GB. (2023). *Diversity and Inclusion in Sport Organizations. A Multilevel Perspective*. Fifth Edition. Routledge.
- Fletcher, T. eta Dashper, K. (ed.). (2014). *Diversity, Equity and Inclusion in Sport and Leisure*. Routledge.
- Galtung, J. (1998). *Tras la violencia 3R: reconstrucción, reconciliación, resolución. Afrontando los efectos visibles e invisibles de la guerra y la violencia. Bakeaz eta Gernika Gogoratuz*. 2022ko abenduaren 5ean berreskuratu zen hemendik: <https://www.gernikagogoratuz.org/wp-content/uploads/2020/05/RG06completo.pdf>
- Guerola, E. eta Pejenaute, ME. (2017): *"Vigorexia"*. Formación Médica Continuada en Atención Primaria 2018. 25 (5): 262–269 .
- Kendi, I. X. (2020). *Cómo ser antirracista*. Rayo verde editorial.
- La Barbera, M.C. (2017). *"Interseccionalidad"*. Eunomia: Revista en Cultura de la Legalidad. (12), 191–198. Hemen eskuratu zen: <https://e-revistas.uc3m.es/index.php/EUNOM/article/view/3651>
- *2/2023 Legea, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena*. <https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/l/2023/03/30/2/dof/spa/html/webleg00-contfich/es/>
- Lynch, S., Walton-Fisette, J. L., eta Luguetti, C. (2022). *Pedagogies of Social Justice in Physical Education and Youth Sport*. Routledge.
- OMS (2020). *Directrices de la OMS sobre actividad física y hábitos sedentarios: de un vistazo*. Hemen eskuratu zen: 9789240014817-spa.pdf (who.int)
- Paaij, R., Magee, J. eta Jeanes, R. (2014). *Sport and Social Exclusion in Global Society*. Routledge.
- Staurowsky, EJ. eta Hart, A. (ed.) (2023). *Diversity, Equity, and Inclusion in Sport*. Human Kinetics.
- Stidder, G., eta Hayes, S. (2013). *Equity and inclusion in physical education and sport*. Routledge.
- Usabiaga, O., eta Yanci, J. (2023). *Iniciación Deportiva: Pautas para el rendimiento, la salud, los hábitos deportivos y el desarrollo integral*. Argitalpen zientifikoak aztertzearen ondoriozko txosten teknikoa. Hemen eskuratu zen: *Iniciación Deportiva: Pautas para el rendimiento, la salud, los hábitos deportivos y el desarrollo integral* (euskadi.eus)





7 GLOSARIOA¹⁶

• **ADINKERIA**

Adinaren arabera diskriminazio soziala da.

• **ANIZTASUN FUNTZIONALA**

Gaur egungo gure gizartearen barneratutako terminoa da, eta gizartearen kide guztiak kontuan hartzen ditu, modu berdinezalean. Kontzeptu horren arabera, pertsona guztiek dute gaitasun eta funtzionaltasun multzo desberdin bat. Aniztasun funtzionalaren kontzeptuaren xedea da bazterketa sozialaren aurka egitea.

• **ANIZTASUNA (KUTURALA)**

Talde eta gizartearen kulturak adierazteko moduen aniztasuna. Adierazpen horiek talde eta gizartearen barruan nahiz horien artean transmititzen dira. Aniztasun kulturala ez da azaltzen gizakion ondare kulturala adierazteko moduen bidez soilik –adierazpen kulturalen aniztasunari esker aberastu eta transmititua bera–, baizik eta baita sorkuntza artistikoaren, ekoizpenaren, banaketaren, hedapenaren eta gozamenaren bidez ere, erabilitako bitartekoa eta teknologia edozein izanda ere.

• **ARRAZISMOA**

Sistema ideologiko honek pertsonen kategorizazioaren alde egiten du, ezaugarri fisiko eta biologikoetan oinarrituta eta ezaugarri horiek etnia edo talde kulturelekin, trebetasun intelektualekin eta balio moralekin lotuta. Arrazismoak kategoria batzuen nagusitasuna legitimatzen du beste batzuen aurrean, botere-harreman menderatzaileak ezarri, mantendu eta indartzeko bitarteko gisa. Zaila da definitzea, zenbait arrazoiengatik, horien artean hauek: batetik, giza generoan existitzen ez den kategoria bat adierazten duen hitz batetik dator (arraz); gainera, maiz, berdin-berdin ematen ditu aditzera kategoria horrekin lotutako ideiak, jarrerak zein jokabideak; eta giza zientziek modu batera baino gehiagotara jorratzen dute, aztertutako elementuen arabera.

• **ARRAZISMO INSTITUZIONALA**

Legezketasuna zehazteko boterea duen erakunde batek aplikatzen du, askotan estatuak. Kasu honetan, arrazismoa erakunde diskriminatzailearen lege edo politika orokor batean islatzen da, ez baitu errespetatzen tratu-berdintasunaren printzipioa.

• **AURREIRITZIAK**

Zerbaiti edo norbaiti buruzko alde aurreko iritzia, orokorrean negatiboa.

• **BARNE-TALDEA**

Pertsona bat psikologikoki talde sozial bateko kide gisa identifikatzen denean.

• **BAZTERKETA (SOZIALA)**

Dinamika sozial honen bidez, pertsona-talde batetik (adibidez, kirol-klub batetik) kanpo uzten dira beste pertsona batzuk, besteak beste sexuagatik, adinagatik, etniagatik edo mugimendu-konpetentziengatik.

• **BERDINTASUNA**

Printzipio honen arabera, herritar guztiok eskubide eta betebeharrak berdinak ditugu.

• **BERRIRO TRADIZIONAL BIHURTzea**

Kontzeptuak tradizio ororen eraikuntza eta deseraikuntza-izaera dinamikoa azpimarratzen du.

• **BIGOREXIA**

Gorputzaren irudiaren aldaketa gisa definitzen da, gorputzaren tamaina eta indarra gutxiesteagatik eta konpentsatzeko jokabide ezegokitzailak garatzeagatik, adibidez murrizketa dietetikoak (proteina-maila handiko eta koipe-maila txikiko dietak), neurri kanpoko kirol-jarduna eta substantzia gehiegiren kontsumoa, adibidez esteroide anabolizatzaileena.

• **BISEXUALA**

Genero batenganako baino gehiagorenganako (norberaren generoa zein

¹⁶ Erabilitako iturriak <https://cepsicologia.com/diversidad-funcional/>; <https://diccionario.cear-euskadi.org/racismo/>; <https://es.unesco.org/creativity/diversidad-cultural>; <https://human-rights-channel.coe.int/stop-sexism-es.html>; <https://www.rae.es/>; <https://www.un.org/es/observances/anti-islamophobia-day>; <https://www.unicef.es/educa/dias-mundiales/dia-mundial-de-la-justicia-social>.

beste bat) ekarpen emozionala, afektiboa eta/edo sexuala sentitzen duen pertsona.

• **DECATHLONIZAZIOA**

Kirol-praktika kirol-produktu merkeen kontsumoarekin lotzen duen fenomeno. Bestela esanda, ematen du ezin dela kirola egin aldeaz aurretik "beharrezko" produktuak erosi gabe.

• **DESGAITASUNA**

Pertsona batek, baldintza fisiko, sentzorial, intelektual edo mental iraunkorren ondorioz, zailtasunak dituenean parte-hartze eta inklusio sozialerako.

• **DISKRIMINAZIO POSITIBOA**

Tradizionalki diskriminazioa jasan duten gutxiengoen talde bateko pertsonen hezkuntzarako, lanerako, osasun-laguntzarako edo ongizate sozialerako lehentasunezko sarbidea ematen dien politika edo programa, gizarte berdinzaleagoa sortzeko helburuarekin.

• **DISKRIMINAZIOA (SOZIALA)**

Pertsona edo kolektibo bati gutxiagotasun-tratua ematea arraza-, erlijio- eta politika-arrazoiengatik.

• **EKITATEA**

Justizia sozialaren ideiarekin lotutako printzipio etiko normatiboa; kontzeptu hori desberdinak diren pertsonen behar eta interesak estaltzen saiatzen da, bereziki desabantailan daudenentzat.

• **EKITAKTIBOA (BEGIRADA)**

Kirola ez bada luxuzko produktu bat baizik eta herritarren eskubide bat, osasuntsu bizitzeko, ekitatearen ideia eta kirolarena bereizezinak dira. Horretan oinarritzen da begirada ekitaktiboaren ideia, aurreko bi ideiak bateratuta. Hasieratik izan da *performatiboa*, eta kirol-politiken esparruko ekintza oro justizia sozialarekin lotzen du.

• **ELITISMOA**

Eliteak daudela dioten jarrera edo joera.

• **ESTEREOTIPOAK**

Pertsonen dauzkaten edo eduki beharko lituzketen ezaugarriak edo funtzio sozialei buruzko iritzi edo aurreiritzi orokorrak dira. Estereotipo bat kaltegarria da, baldin eta oztopo bada pertsonen gaitasun pertsonalak gara ditzaten, karrera profesionala egin dezaten eta beren bizitzari eta bizi-proiektuei buruzko erabakiak har ditzaten.

• **GAYA**

Gizon gisa identifikatutako pertsona batek beste gizon batzueganako erakarpen emozionala, afektiboa eta/edo sexuala sentitzen duenean.

• **GENEROA**

Sozializazio-eragileen bidez (familia, eskola, berdinaren taldea, hedabideak, etab.) transmititzen den eraikuntza soziala da, eta egitura sozialak kideentzat zehazten duen erlijio- eta maila aldakor batekin erreproduzitu eta transferitzen da.

• **GUTXIENGOEN HIZKUNTZAK**

Gutxiengoen hizkuntza bat da lurralde bateko gutxiengo batek hitz egiten duena, eta, maiz, estatuko hizkuntzaren itzalpean gelditzen da.

• **HETEROARAUA**

Sistema edo sinesmen kultural honen arabera, pertsonak sexu eta genero bakar eta osagarrietan sartzen dira, eta heterosexualitatea da orientazio sexual normatiboa. Heteroarauaren ikuspegiak sexu biologikoa, sexualitatea, genero-nortasuna eta genero-adierazpena lerrotzen ditu.

• **HIZKUNTZA GUTXITUAK**

Gutxiengoen hizkuntza baten erabilera murriztuta dagoenean arrazoi politiko edo sozialengatik.

• **HOMOFOBIA**

Lesbiana, gay edo bisexualenganako beldurrean, mesfidantzan, higuinean eta gorrotoan oinarritutako aurreiritziak, diskriminazioa, jazarpena edo indarkeria.

• **INKLUSIOA**

Pertsona-talde bat edo batzuk beste talde baten barruan sartzea, taldearen osakera aldatzea eta jatorrizko taldeen arteko interakzioa eta fusioa sustatzea.

• **INTEGRAZIOA**

Pertsona-talde bat edo batzuk beste talde baten barruan sartzea, baina taldearen barruan inolako aldaketarik eragin gabe, ezta interakziorik ere.

• **INTERSEKZIONALITATEA**

Ikuspegi analitiko eta politiko honen arabera, desberdinkeria sistemikoak zenbait faktore sozial gainjarri edo gurutzatzean konfiguratu dira, besteak beste generoa, etnia eta klase soziala.



- **INTERSEXUALITATEA**

Intersexualitatea terminoa erabiltzen da pertsonen ugalketa-anatomiako desberdintasun sexualak azaltzeko. Askotan, desberdintasun horiek jaiotzatik ikusten dira, baina, beste batzuetan, beranduago garatzen dira, normalean pubertaroan edo nerabezaroan.

- **IRISGARRITASUNA**

Toki, produktu edo pertsona batenganako irispidea lortzeko erraztasuna.

- **IRISGARRITASUN "IMMATERIAL" EDO SINBOLIKOA**

Toki, produktu edo zerbitzu bat pertsona batzuentzat egokia ez dela pentsaraztera eraman dezaketen oztopo immaterial-psikologikoak hausteko erraztasuna.

- **IRISGARRITASUN MATERIALA**

Toki, produktu edo zerbitzu baterako irispidea lortzeko erraztasun materiala (oztoporik gabeko diseinu arkitektonikoa, erraz erabiltzeko softwarea eta prezio ekonomikoak, adibidez).

- **ISLAMOFobia**

Islamofobiak barne hartzen ditu musulmanenganako beldurra, aurreiritziak eta gorrotoa, eta horrek probokazioa, oldarkortasuna eta intolerantzia eragiten ditu, mehatxuen, jazarpenaren, abusuaren, zirikaden eta larderiaren bidez, bai musulmanei eta bai musulmanak ez direnei, sarean eta saretik kanpo. Oldarkortasun instituzional, ideologiko, politiko eta erlijiosoak eragiten du, eta, arrazismo estruktural eta kulturaletik harago, islamofobiak musulmanen sinbolo eta zeinu bereizgarriak jazartzen ditu.

- **JUSTIZIA SOZIALA**

Justizia soziala aukera-berdintasunean eta giza eskubideetan oinarritzen da, justizia legalaren kontzeptu tradizionaletik harago. Ekitatean oinarritzen da, eta ezinbestekoa da pertsona bakoitzak potentzial handiena garatzeko eta gizarte baketsua sustatzeko.

- **KANPO-TALDEA**

Pertsona bat ez denean psikologikoki identifikatzen talde sozial bateko kide gisa.

- **KAPAZITISMOA**

Subjektu eta gorputz mota jakin bat giza normaltasunaren funtsezko izaera batekin parekatzen duten sinesmen, hitzaldi eta praktiken multzoa. Horrez gain, uste dute

desgaitasuna gizakiaren egoera debalatu eta desagokia dela, eta bere onera ekarri edo sendatu egin behar dela.

- **KIROL BIHURTZEA**

Denominación del proceso por el cual Kiroletik kanpoko praktika eta ohitura sozialak kirol-terminoetan berrantolatatu eta berrinterpretatzen direnean. Adibide paradigmatico bat da *coaching* fenomenoak gizartean luze-zabal hedatu izana.

- **KLASISMOA**

Klase sozial batek hartzen duen joera edo jarrera diskriminatzailea azpikotzat jotzen dituen beste batzuen aurrean.

- **LESBIANA**

Emakume gisa identifikatutako pertsona batek beste emakume batzueganako erakarpen emozionala, afektiboa eta/edo sexuala sentitzen duenean.

- **LINGUIZISMOA**

Hizkuntzan oinarritutako diskriminazio, marjinazio, baztertze, bereizketa, lehentasun edo segregazio oro.

- **LODIFOBIA**

Pisu asko duten eta finkatutako gidalerro estetikoetatik aldentzen diren pertsonenganako arbuioa, diskriminazioa eta gaitzespena.

- **MASKULINOTASUN HEGEMONIKOA**

Erreferente soziokulturaltzat jotzen den maskulinitasun nagusia, beste maskulinitasun batzuen aurrean.

- **MUGIKORTASUN-KAPITALA**

Pertsona baten mugitzeko trebetasun edo baliabideak, nagusiki bizitzan zehar jaso duen kirol-hezkuntzarekin lotuta.

- **QUEER**

Pentsamendu-korrante honen helburua da giza aniztasuna indartzea, zentzu zabalean, eta nortasun finko edo estatikoetatik aldentzen da, giza potentzialtasunen aldakortasun eta aniztasunaren alde.

- **SEGREGAZIOA**

Dinamika sozial honen bidez, pertsona-talde bat beste talde batetik kanpo uzteaz gain, beste talde batean edo batzuetan taldekatzen dira.



• SEXUA

Gure kulturen pertsona bat "gizon" edo "emakumetzat" jotzeko kontuan hartzen diren desberdintasun anatomiko, biologiko eta fisiologikoak. Zehazki, sexua kromosomen, hormonon eta genitalen arteko desberdintasunen arabera zehazten da, pertsonen eta beste izaki bizidun batzuen sailkapen kultural bitar batean (arra-emea edo gizona-emakumea), irizpide genetiko, biologiko, fisiko eta fisiologikoetan oinarrituta.

• SEXISMOA

Sexismoa da ideia honetan oinarritzen den adierazpen oro (ekintza, hitz, irudi edo keinuak izan): pertsona batzuk, gehienetan emakumeak, behe-mailakoak dira, beren sexua dela eta.

• SINESMENAK

Pertsona, talde sozial edo alderdi politiko baten printzipio ideologikoen multzoa.

• TOKENISMOA

Tokenismoak zera adierazten du: diskriminatutako kolektibo bati kontzesio txikiak egitea eta kontzesio horien eragin eskasa edo hutsala izatea *statu quo*-a aldatzeko.

• TRANS

Aterki-termino honek barne hartzen ditu jaiotzean sexuaren arabera emandako

generoarekin identifikatuta sentitzen ez diren pertsona guztiak. Erreferentzia egiten dio gorputza, nortasuna eta ezarritako arau sozial bitarrak gaingaitzen dituzten bizipenak ulertzeko heterogeneotasunari. Beraz, ez du bereizketarik egiten, pertsona operatua egon zein ez eta edozein dela ere pertsona horrek bere genero-nortasunari ematen dion zentzu politikoa.

• TRANSFOBIA

Neologismo honek erreferentzia egiten dio pertsona transgeneroen, transexualitatearen edo oro har genero-aniztasunaren aurkako jarrera, sentimendu edo ekintza negatiboak barne hartzen dituzten ideia, jokabide eta fenomenoek multzoari.

• XENOFOBIA

Atzeritarrenganako gorrotoa, mesfidantza, oldarkortasuna eta arbuioa. Hitza esanahi zabalago batekin ere erabiltzen da, talde etniko desberdineganako edo fisionomia sozial, kultural eta politiko ezezaguneko pertsonenganako fobia adierazteko.

• ZISGENEROA

Pertsona baten genero-nortasuna bat datorrenean jaiotzeko sexu biologikoarekin; beraz, genero-autopertzepzioa eta -adierazpena bat datoz jaiotzeko sexurako "apropostzat" jotzen diren jokabide eta roletan.

